

Euskadiko karate txapelketa jokoan Zornotzan

Master mailako txapelkunak Amorebieta IV pilotalekuan erabakiko dira, domekan. 140 karateka batuko dira, karateak bizi duen gorakadaren erakusgarri / 21



**Miren Artetxe
sortzaileak
hilabeteko
egonaldia egin
du Atxondon** / 12



**1,9 milioi euroko
kreditua onartu dute
Elorrioko San Pio
kaleko lanetarako** / 14

**Traña-Matienako
egoiliarrentzako TAO
sistema proba fasean
maiatz amaieran** / 10



**"GOIZEKO BONBARDAKETA
ETXEAN PASATU GENUEN.
ARRATSALDEKOA
GOIURIATIK IKUSI GENUEN.
TERRIBLEA IZAN ZEN"**

Martxoaren 31n 88 urte beteko dira faxistek Durango, Abadiño eta Elorrio bonbardatu zituztela. 4 urte baino ez zituen arren, Mikel Aretxagak ondo gogoan ditu egun hartako oroitzapen latzak. / 2-5

Mikel Aretxaga.

Lehenengo oroimen ekitaldia Irazabal barik

Urtero martxoaren 31n Andra Mariko elizpean egiten duten ekitaldian Jon Irazabal gogoratuko dute. Historialariak hainbat ikerketa egin zuen memoria historikoaren eta bonbardaketaren inguruan. Ekitaldi horren bultzatzaileetariko bat ere izan zen

Jone Guenetxea DURANGALDEA

Astelehenean 88 urte beteko dira faxistek Durango bonbardatu eta 213 lagun hil zituztenetik. Urte askoan isiltasuna nagusitu da gaiaren inguruan. Gerraosteko errepresioak eta minak gertaturikoa ahanzturara eraman zuten. Testuinguru horretan, Jon Irazabal historialariak, gaia argitu guran, hainbat ikerketa lerro zabaldu zuten. Gaur egun ezagutzen dugun hainbat datu iurretarrari eskerrak dakigu. Irazabalek makina bat artxibo eta liburutegi arakatu zuen gertaturikoa ezagutu guran. Jakin-min asezin horri Gerediaga elkartearen

jubilatu ostean ere eutsi zion. Historialaria joan zen abuztuan zendu zen eta hutsunea utzi du memoria historikoaren ikerkuntzan. Gerediagak eta Kriskitinek Andra Marian egiten duten oroimen ekitaldi herrikoian iurretarra faltako den lehenengo aldia izango da aurtengoa. Bere memoria eta ekarpena hantxe izango dira, baina. Izan ere, antolatzaileek aurreratu dutenez, Irazabal gogoan izango dute martxoaren 31n, 19:30ean, Andra Mariko elizpean.

1937ko martxoaren 31 hartan, Durangoko bonbardaketa Matienan hasi zen. "Biktima batzuk

Traña-Matienako baserrietan hil ziren, euren etxeetan. Argi duguna da martxoaren 31 hartan eskuadrilla italiar bi banatu egin zirela. Bata Durangora etorri zen, eta bestea Elorriora. Beraz, Abadiñoko lau biktimak Durangora etorritako eskuadrillaren erasoan eraginez hil ziren", azaldu zuen Jimi Jimenez historialariak ANBOTOn iaz egindako elkarriketan. Elorrioren kasuan, erasoak zazpi hildako utzi zituen. Gertaturikoa gogoratzeko, Laumunarieta elkarteak lore eskaintza egingo du bonbardaketa dela-eta herrian ipinitako totemean.



Jon Irazabal bonbardaketaren inguruko liburu bat aurkezteko ekitaldian.

Saibiko aurkikuntzak

Gerediaga elkarteak hiru ekintza antolatu ditu Saibigainen egiten dabilzan lanak ezagutarazteko: erakusketa bat, berbaldi bat eta Saibigainera igoera.

Saibigainen lurperaturikoa azalera ateratzen dabilza orain, eta horri arreta jartzea dagokigu", azaldu zuen Gerediaga Elkarteko Goiatz Pelaezek egitarauaren aurkezpenean. Prospekzio taldeagaz batera martxan ipini duten erakusketa martxoaren 30era arte egongo da Kurutzasantu museoan. Azken urteetan Saibigainen egindako prospekzioetan ateratako elementuak erakutsiko dituzte erakusketan.

Berbaldia bihar (martxoak 29) izango da eta Saibigaineko prospekzioko emaitzak azalduko dituzte bertan, Aranzadi elkarteak Lourdes Herrastik euskaraz, eta Euskal Prospekzio Taldeko Kepa Ganuzak gaztelaniaz. Azkenik, domekan (martxoak 30) Saibigainera igoko dira, prospekzio lanen gaineko xehetasunak bertatik bertara ezagutzeko.

Hiru prospekzio

lazko azaroaren 2an, zapatua, Aranzadi Zientzia Elkarteak eta Euskal Prospekzio Taldeak gerra zibileko gudari baten

hezur-hondarrak berreskuratu zituen, Saibigain mendiaren tontorretik gertu.

Gizaki baten hezurdura osoa aurkitu zuten lurperatuta, eta haren jantzien hondarrak, hala nola Eusko Gudarostearen jaka eta gerrikoaren zatiak, Astra markako pistola bat, munizioa, eta objektu pertsonal batzuk: metxeroa, txanpon bi, eta anpoila medikamentu bi. Aurkikuntza Saibi (954 m.) mendiaren tontorreko hegalatetako batean egin zuten, sigi-saga zulatutako lubaki baten lerrotik gertu, behealde batean, babesleku moduko bat izan daitekeena.

Urkiolako Parke Naturaleko eremu horretan 2024an egindako hirugarren desobiratzea da hori. Hiru desobiratze horiek Euskal Prospekzio Taldea 2023ko irailtik egiten dabilen prospekzio lanaren emaitza dira. Parke natural lez babesturiko eremua izanik, Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak baimena eskatu zion Bizkaiko Foru Aldundiari prospekzio

SAIBIGAIN INGURUAN BORROKA GOGORRAK IZAN ZIREN 1937KO APIRILAREN 6TIK 15ERA



2024ko azaroan egindako azterketa. EUSKADI.EUS

lanak egin ahal izateko, eta lanak 2024. urte osora zabaldu ziren.

Jarduera horiek guztiak Gogora Institutuak garatzen duen Gerra Zibilean Desagertutako Pertsonak Bilatzeko Programaren barruan sartzen dira. Programa hori Euskal Prospekzio Taldearen, Aranzadi Zientzia Elkartearen eta EHUko Biomics laborategi genetikoaren bitartez egiten dabilza.

Saibigain inguruan borroka gogorak izan ziren 1937ko apirilaren 6tik 15era, eta hildako asko izan zen, dokumentazioaren eta testigantzen araberak. Izan ere, gailurrak 'odolaren mendia' ezizena du, tokia gorpuz

josita geratu zela kontuan hartuta, gailurraren kontrola lortzeko borroken ondoren; leku hori estrategikoa zen ikuspegi militarretik.

Egun batzuk lehenago Durango bonbardatzea ez zen kasualitatea izan. Izan ere, Durango miliziar eta gudarien erretaguardia izan zen. Aire eraso zibilen kontrakoa izateaz gainera, helburu militar bat ere bazuen. Durangok tropak frontera eramateko bidea zuten. Trenbide linea zuten frontea hornitzeko. Gainera, Durangaldean gudarien populazio handia zegoen. Durangon 8 kuarter zeuden, eta lau-bost Elorrioren. Unitate militar ugari zegoen frankistek frontean aurrera egin ez zezaten.

MARTXOAK 31

DURANGOKO BONBARDAKETAK OROITUZ EGITARAUA

MARTXOAK 25 - 28

Bisita gidatuak

'Aztarnak' ibilbidea.
Lehen Hezkuntzako, DBHko eta Batxilergoko ikasleei zuzendua.
Ibilbidea: Kuruziaga Kalea - Komentukalea - Andra Maria Kalea - Ezkurdi Plaza - Etxezarreta Jauregia - Nevers Ikastetxea.
Antolatzailea: Gerediaga Elkarte.

MARTXOAK 25 - 30

Erakusketa

Kurutzesantu Museoa.

Saibigainen egin diren prospekzio lanetan aurkitutako elementuen erakusketa.

Antolatzailea:
Gerediaga Elkarte

MARTXOAK 29

ZAPATUA

Bisita gidatuak:

'Aztarnak' ibilbidea
Hasiera: Ezkurdi Plaza.
10:30ean euskaraz / 16:30ean gaztelaniaz.
Izen ematea: gerediaga@gerediaga.eus / 94 681 80 66.
Ekintza doakoa da.
Antolatzailea:
Gerediaga Elkarte.

12:00 Berbaldia: 'Saibiko prospekzio lanak eta egungo emaitzak'. Kurutzesantu Museoa.
Hizlariak: Kepa Ganuza Zárraga (Euskal Prospekzio Taldea) - Gaztelaniaz
Lourdes Herrasti Erlorgorri (Aranzadi) - Euskaraz

MARTXOAK 30

DOMEKA

10:30 Saibira igoera eta prospekzio lanen azalpena
Gidariak: Euskal Prospekzio Taldea / Hizkuntza: Euskara / Antolatzailea: Gerediaga Elkarte. Topagunea: Bizkarra jatetxeko aparkalekua.

MARTXOAK 31

ASTELEHENA

8:00 Bonbardaketetan hildakoen omenezko lore eskaintza. Durangoko hilerria.

8:30 Lehen aire erasoaren alarma hotsa.

9:00 Biktimen oroimenezko suontzia piztea.
Andra Mariko arkupea.

12:00 Bonbardaketaren biktimen oroimenezko ekitaldi instituzionala.
Ezkurdi Plaza.

17:45 Bigarren aire erasoaren alarma hotsa.

19:30 Bonbardaketaren biktimen oroimenezko ekitaldia.
Antolatzaileak: Gerediaga Elkarte eta Kriskitin Dantza Taldea.
Andra Mariko arkupea.

APIRILAREN 1ETIK 15ERA

Erakusketa: 'Emakumeak aberria eginez'

Ordutegia:

11:00 - 13:00 / 16:00 - 19:00

Astelehenetik barikura

11:00 - 13:00 Zapatu eta domeketan

San Agustin Kultur Guneko ataria.

APIRILAREN 2TIK 6RA

Erakusketa: 'Durango, 1937ko martxoaren 31, asteazkena'

Egilea: Romá Arranz.

Kurutzesantu Museoa.

LABORAL KUTXA eta AMA TOLOSA aurkezten dute:

BABESLEAK

Partekatutako balioetan oinarritutako harremana.

LABORAL Kutxan eta AMA Tolosan bat gatoz gure lurra eta nortasuna babesteko konpromisoarekin.

Eta, espiritu horrek bultzatuta, oso zozketa berezia egingo dugu:

AMA Tolosako 4 esperientzia gastronomiko eta 2 lagunentzako gau bateko egonaldia nekazaritza-turismoko establezimendu batean*.



HARTU PARTE HEMEN:

laboralkutxa.com/ew/
babesleak-ama-tolosa

*LABORAL Kutxaren bezero diren 18 urtetik gorako pertsona fisiko guztiak hartuko dute parte zozketan, baldin eta 2025eko martxoaren 16tik apirilaren 20ra bitartean mezu elektronikoko galderei erantzuten badiete. Zozketa, AMA Tolosa jatetxeko esperientzia gastronomikoen 4 sorta, 2 lagunentzat bakoitza, eta gosaria barne duen 2 lagunentzako ostatu-gau bat, KORTETA AGROTURISMOA establezimenduan, 2025eko maiatzaren 10erako. AMAko lantegia maiatzaren 10eko arratsaldean izango da, 18:30 aldera, eta, ondoren, afaria zerbitzatuko da. Joan-etorriak ez dira sartzen. Zozketaren data: 2025eko apirilaren 22a. Ikusi zozketaren oinamak laboralkutxa.eus webgunean.

LABORAL
kutxa

Bada beste modu bat

Jone Guenetxea DURANGO

Madalena auzoa garraibideen zentroa da momentu honetan Durangon. Mende bat atzera eginda, inguru hori landa eremua zenean, Olleria legez ezaguna zen etxean bizi zen Mikel Aretxaga. 92 urtegeaz, memorian garbi-garbi gorde du txikitik bizitakoa: Durangoko bonbardaketako hegazkinen zarata eta baita hilabete batzuetara bueltatzerakoan aurkitutako triskantza ere. Martxoaren 31n 88 urte beteko dira sarraski hartatik. Aretxagak ez du ahaztu gura.

Gaztea zinen Durango bonbardatu zutenean.

1932koa naiz; beraz, 4 urte nituen, urrian eginda.

Zelan gogoratzen duzu egun hura?

Hasieran ez genekien zer gertatzen zebilen. Baina, gero, albis-teak heltzen hasi zitzaizkigun. Gure familia buzingilea zen eta etxearen beheko aldean tailerra zuten. Haraixe bajatu ginen. Labe handi bat genuen, eta goizeko bonbardaketan hantxe sartu ginen. Bonbardaketa amaitu zenean, zaratarik entzuten ez genuenez, irten egin ginen. Esaten zutenez, hegazkinak kargatzera joan ziren eta beste bonbardaketa bat aurreikusten zen. Ordu bi eta erdi inguru genituela esan ziguten, eta alde egitea erabaki genuen. Aitak etxeko atea giltzagaz zarratu eta Iurretako Goiuria auzora joan ginen, bai nire familia eta baita gure ondoan bizi zen osabarena ere. Hango elizpean pasatu genuen arratsaldea. Terriblea izan zen. Arratsaldeko bonbardaketa Goiuriatik ikusi genuen. Gu altueran geunden eta hegazkinak zelan bajatzen ziren eta zelan bonbardatzen zuten ikusi genuen.

Exera bueltatu zineten?

Ez, Goiuriako elizako atzeko aldetik zihoan bidetxo batetik Oromiñora joan ginen. Gure familia eta osabarena ere joan ginen. Osabak hiru alaba zituen. Nik hiru arreba nituen, baina eurentariko bat ez zen etorri.

Arreba horrek zergaitik erabaki zuen ez joatea?

Ikastolako andereñoa zen. Lehenengo ikastolako andereñoa izan zen. Felisa deitzen zen, guretzat Feli. Eusko Jaurlearitzak abisua eman zion eskolako ume guztiak Durangotik ateratzeko, bestela denak hilko zirela. Felik amagaz berba egin zuen ea ni beragaz eramanez edo ez. Lau urte baino

"Etxera bueltan, obus baten zuloa topatu genuen horman"

MIKEL ARETXAGA MOTXOBE (DURANGO, 1932) BONBARDAKETAREN LEKUKOA Durangarrak lau urte zituen Durangoko bonbardaketan. Goizeko bonbardaketa etxeko beheko solairuan pasatu zuten. Arratsaldekoa, Iurretako Goiuria auzoan



Mikel Aretxaga.

ez nituen, eta familiagaz hobeto egongo nintzela esan zion arreba amari. Ez zekiten zer topatuko zuten. Feli eta beste hainbat irakasle eta ume talde Santanderrera joan ziren. Itsasontzien zain geratu ziren bertan. Feli Iparraldera joan zen hainbat umegaz, Donibane Garazira. Zentro batean egon ziren, eta orain hile bi leku hori bisitatzea joan ginen. Bertan egokitu zituzten denak. Leku onean egon ziren. Eskolak ematen zituzten, euskaraz.

Eta zuek ondo heldu zineten Oromiñora?

Denok elkarregaz joan ginen, osaba neskekin eta gu. Gau hori hango eskolan pasatu genuen. Koltxoi batzuk ekarri zizkiguten eta bertan lo egin genuen. Durango txikituta zegoela esan ziguten. Gauzak horrela, Bilbora joatea pentsatu genuen, amaren ahizparengana. Lau edo bost hilabete egin genituen Bilbon. Baina Franco bertara sartu zen eta bonbardaketa hori ere bizi izan genuen.

Zelakoa izan zen Bilboko bonbardaketa?

Francok Bilbo hartu zuenean, Artxandatik bonbardatzen hasi ziren. Gogoan dut etxetik zelan bajatzen ginen Erriberara, merkatu plazaren ondoan izekoren etxetik Caja de Ahorros batetik gertu zegoen babesleku batera. **Zelan erabaki zenuten Bilbora bueltatea?**

Aitak durangar batez topo egin zuen Bilbon, kalean. Durangar horrek esan zion bueltatu egingo zirela, frankistek egin beharrekoa eginda zegoela eta dena txikituta zegoela. Gure etxea zutik zegoela esan zioten, baina oso hondatuta. Geuk ere bueltatea erabaki genuen.

Exera bueltan, zelan aurkitu zenuten etxea?

17:00 aldera ailegatu ginen etxera. Atari guztia kristalez beterik topatu genuen. Horman zulo bat zegoen, obus batek egindakoa. Giltzak atera, eta atea zabaldu zuen aitak. Dena hondakina zen. Teilatua ere txikituta zegoen. Hala ere, sartu egin ginen. Aita sartu zen lehenengo, eskailerak

"GOIURIATIK HEGAZKINAK BAJATZEN ETA DENA BONBARDATZEN IKUSI GENITUEN"

ondo zeuden baieztatzeko. Amari eskutik helduta sartu nintzen. Panorama hura ikusita, hauxe galdetu nion: "Ama, hemen bizi behar dugu?". Ama negarrez hasi zen. (pasarte gogoratzerakoan, segundo batzuetako isilunea egin du, arnasa sakon hartzeko).

Oraindino ere emozionatu egiten zara pasarte hori kontatzerakoan. Bai. Bost urte nituen arren, ondo gogoratzen dut momentu hura. Bonbardaketan obus bat sartu zen horma batetik eta zulo handi bat egin zuen. Aitaren eta amaren gela zeharkatu zuen eta beheko solairura heldu zen. Buztina lantzeko tresnen artean geratu zen. Ortu txiki bat geneukan, baina ez geneukan hazirik ereiteko. Geroago, osaba bere familiagaz etorri zen.

Zelan geratu zen tailerra?

Han ezin zen beharrik egin. Errobera bi zituzten eta produktu batzuk egiten hasi ziren, baina oso astiro bueltatu ziren lanera. Uste dut momentu hartan Bilboko izekok lagunduko zigula. Mertzeria ezagun bat zuen. Gainera, obusa tailerlean zegoen, eta ez zuten mugitu gura, badaezpada. Jose izeneko bati obusa buztin artetik ateratzeko eskatu zioten. Obusa ikustera etorri ziren etxera, eta ondo begiratu ostean esan zuten bonbak eztanda eginda egon behar zuela haraino heltzeko. Eta kendu egin zuten handik.

"LAU EDO BOST HILABETE PASATU GENITUEN BILBON, IZEKOREN ETXEAN BIZITZEN"

Behin hasierako eragina pasatuta, zelan jarraitu zenuten bizimoduagaz aurrera?

Arreba ikastolako andereñoa zen, baina gerraostean ez ikastolarik ez ezer. Euskararen aurkako debekua oso argia zen. Nik 6-7 urte nituenean, arrebak amari esan zion eskolara joan beharke nuela, euskaraz izan ez arren. Denbora pasatu zen eta Maristetara bidaltzea erabaki zuten. Hara joateko ere dirua behar zen. Bilboko izeko etorri zen eta ni eskolara eramateko esan zion amari, konponduko ginela. Nik euskaraz nekien bakarrik, eta eskolan dena erdaraz ikasten genuen. Ikasi nuen.

Zelan gogoratzen duzu gerraostea?

Errazioak ematen zituzten txartelagaz. Dendara joaten ginen harekin. Tabakoa ere erosten genuen, aitarentzat. Orduan ez genekien zeinen txarra zen. Ondo egiten zuelakoan!

15-16 urteagaz arrebak zerrako jabeagaz amastadae zuen eta hara bidali ninduen, Comercio ikasten nabilela eta, praktike-tan hasteko. Handik urtebetera, beste lagun batez Curtidos el Tigre enpresara joan nintzen. Han beste urtebete egin nuen.

Zelan gogoratzen duzu frankismoa?

Ezin zen euskaraz egin. Gainera, kanpotik etorritako frankistak txarrak ziren. Errepresio handia bizi izan genuen. Adibide bat ipintzearren. Gure etxea Madalengan zegoen, Ollerria legez ezaguna zen. Gaztea nintzela futbolearen aritzen ginen han kanpoan, eta ama balkoira irteten zen bazkaltzeko ordua zela gogorarazteko: "Mikel!", deiadar egiten zidan. Halako batean, andra batzuk espaloitik pasatu ziren: "Ai señora, no comprendo qué nombre es ese.



Mikel Aretxaga, bonbardaketaren inguruko elkarrizketan azalpenak ematen.

¿A quién está llamando?", esan zion euretariko batek amari. "Estoy llamando a mi hijo, que se llama Mikel", erantzun zion amak. "¡Es que no se puede decir nada, nos encontramos con cada cosa!", erantzun zion andreak. Kontu handiz ibili behar izaten zen, beti beldurragaz.

Orokorrean, urte askoan ez da barbarik egin bonbardaketari buruz. Zuen etxean bai? Egon da transmisio hori?

Gerraostean ezagunen artean berba egiten genuen, baina orokorrean, ez. Frankisten propagandak esaten zuen gorriak izan zirela bonbardaketaren egileak. Baina guk bagenekien ez zala hala. Kontu handiz ibili beharra zegoen. Horregaitik, garrantzitsua da hurrengo belaunaldiei gertatu zena gogoraraztea, ez ahazteko.



Aretxaga bere familiaren argazkiagaz, Ollerria etxea atzean duela.

Joaten zara oroimen M31ko ekitaldietara?

Bai, ahal dudanean joaten naiz. Iaz Benita Uribarrena parke-kora joan nintzen eta lore eskaintzan parte hartu nuen.



Ikusi bideoa



BATXILERGORAKO
AURREMATRIKULAZIO EPEA
Martxoaren 31tik Apirilaren 11ra

DBH - BATXILERGOA

OROKORRA
ARTEAK

• Arte plastikoak, irudia eta diseinua.
• Musika eta arte eszenikoak.

ZIENTZIAK ETA TEKNOLOGIA
GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

HEZIKETA ZIKLOAK

ERDI-MAILAKO ZIKLOA

• Natura Inguruneko gidari lanetako eta aisialdiko teknikaria.

GOI MAILAKO ZIKLOA

• Gizarte eta Kirol Irakaskuntzako eta Animazioko Goi-Mailako Teknikaria.



Plantilla organikoa aldatzeko erabakiak EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin egin zuen aurrera. DURANGOKO UDALA

Eztabaida udalean euskara teknikariaren auzian

Durangoko Udalak euskara teknikariaren lanpostua kendu du eta ardura postu berria sortu du trukean. Lanpostu berri horretako langilea euskara eta hezkuntza arloak garatzeaz arduratuko da, baita herritartasun arloko sail guztiak koordinatzeaz ere

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko udalbatzak aldaketa bat egin du plantilla organikoan: euskara teknikariaren lanpostua erretiratu du, eta ardura postu berria sortu du trukean. Figura berri hori euskara eta hezkuntza arloetako arduraduna izango da aurrerantzean, eta, zeregin horiez gainera, herritartasun arloko sailak koordinatzeko ardura ere izango du: euskara, hezkuntza, kultura, jaiak, gazteria eta kirol sailak koordinatzeko betebeharra, hain zuzen ere.

Eguazteneko osoko bilkuran, auziak aurrez aurre ipini zituen gobernu taldeko kideak eta oposizioko alderdi nagusiak. EH Bilduren ustez, aldaketak "ez die

euskararen beharri zehatzak erantzuten". Oraindino gehiago; Iker Urkizak "oso larritzat" jo zuen hiru ardura postu bakar batean batzea. Herriaren Eskubideko Jorge Varela interpretazio berdintsua egin zuen: "Pertsona bakar batek nekez atera ditzake aurrera hiru eremuetako lanak. Gainera, ez dugu bat egiten euskara teknikariaren lanaldia gutxitzeko erabakiagaz". Gobernu taldeko kideen interpretazioa, ostera, bestelakoa da. EAJko Josune Escotak aldaketa defendatu zuen: "Proposatzen dugunak benetako garrantzia ematen dio euskarari. Euskara udaleko zuzendaritza batzordean egongo da lehenengoz. Herritartasuneko

koordinatzailea izango da, hain zuzen ere, euskarari lehentasuna eskainiko diona". PSE-EEko Jessica Ruizek zehaztu zuenez, neurri berriak udal barruko sindikatuen "oniritzia" du: "ELA eta Esan sindikatuek neurriaren alde egin zuten, baita CCOO ere, nahiz eta azken horrek ez duen botoa emateko aukerarik". Escotak jakinarazi zuen LAB ez zela bozketa hartan egon. PPko Carlos Garciak ez zuen adierazpenik egin lanpostu berriari buruzko eztabaidan.

Aldaketak aurrera egin zuen, EAJren eta PSE-EEren botoekin. EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak kontra egin zuten. PP abstenitu egin zen.

Ehun dinamikaren mozioa barik, mozio alternatiboa onartu dute

EAJk testu alternatiboa aurkeztu zuen, eta horrek egin zuen aurrera, jeltzaleen eta EH Bilduren aldeko botoekin

Ekaitz Herrera DURANGO

Ehun mugimenduak —euskal errepublikaren aldeko dinamikak— mozioa aurkeztu zuen eguaztenean Durangoko osoko bilkuran. Unai Apaolaza bozeramaileak eraman zuen adierazpe-

na ordezkarien aurrera, eta Durango euskal errepublikaren parte dela aldarrikatzera deitu zituen udalerriko 21 zinegotziak: "Euskal Herrian bizi garen denok eskubide berak izan behar ditugu, eta, eskubide horiek bete ahal

izateko, derrigorrezkoa da euskal errepublika bat, Espainian eta Frantzia eskubide horiek betetzea ezinezkoa da eta", azaldu zuen. Alde horretatik, adierazpena onartzea "euskal errepublikara hurbiltzeko modua" izan daithekeela iritzi zion bozeramaileak. EAJko Julene Zamalloak adierazpen alternatiboa aurkeztu zuen. Testuan, "estatus berri baterako pausoak ematea guztiz funtsezkoa" dela adierazi zuen, eta bide hori "aldebikotasunean eta erabakitzeko eskubidean" oinarritu behar

Kale berria jaio da Durangon: 'Ramon Rubial kalea'

San Fauston dago, han eraikitzen dabilzan etxebizitza berrien artean. Montorreta eta Zirarmendieta lotzen ditu

Ekaitz Herrera DURANGO

Kale berria jaio da San Fausto aldean: Ramon Rubial kalea. Auzoan eraikitzen dabilzan etxebizitza berrien zati da kalea, promotore pribatuek finantzaturikoa, eta lanak amaituta udalak jaso duena. Kaleak 3,5 metro zabaleko espaloia du, baita 17 autorentzako aparkalekua ere. Mireia Elkoroiribe alkateak eta Sara Oveja hirigintza zinegotziak azaldu dutenez, kale berriak "etengabe hazten dabilen udalerraren beharri zehatzak erantzuten die.



Ramon Rubial kale berria. UDALA

Zuhurtziarako deia, Durangoko adin txikiko bati gertaturikoagaitik

Udalak jakinarazi duenez, "43 bat urteko emakume batek autora sartzeko gonbita egin zion adin txikiko bati"

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko Udalak zuhurtziarako mezua kaleratu du, eta herritarrei eskatu die "euren ardurapeko adin txikikoekin jarrera arduratsua" izateko eta "adi" egoteko. Kontua joan zen eguazteneko, Tronperri kalean gertaturikoaren harira. Udal iturriek jakinarazi dutenez, egun hartan, 19:45 aldera, 43 bat urteko emakume batek adin txikiko bati auto batean sartzeko gonbita egin zion behin eta berriro. Azkenean, proposamena etengabe egin ziola eta, neskatok

handik alde egin zuela jakinarazi dute udal iturriek. Adin txikikoaren legezko tutoreak salaketa ipini du Durangoko udaltzainguan, eta Ertzaintzari gertakaria ikertzeko eskatu dio.

Udalak jakinarazi du polizia-egitura biak elkarlanean dabilzala, eta zaintza lanak areagotu dituzte umeak ibiltzen diren udalerriko inguruetan. Udalak lasaitasunerako deia egin du, eta gogorarazi du elkarlana eta arreta funtsezkoak direla adin txikikoaren segurtasuna hobetzeko.



Unai Apaolaza, Durangoko udalbatzan.

dela zehaztu. "Euskadi naziotzat aitortzea" eta "Euskal Herriaren eskubide historikoak guztiz gauzatzea" proposatu zuen horretarako, besteak beste. EAJk, PSE-EEK eta PPk bizkarra eman zioten Ehun mugimenduaren mozioari. EH Bildu eta Herriaren Eskubidea abstenitu egin ziren. EAJk aurkezturiko mozioan, ostera, honako hau izan zen emaitza: PSE-EEK eta PPk kontra egin zuten, Herriaren Eskubidea abstenitu egin zen, eta EH Bilduk eta EAJk alde egin zuten.

OSTALARITZA GIDA



IURRETA

GAUARGI



Dantzari, 4 behea
Tel.: 944 356 674

Eramateko tortilla bereziak. Barikuetan mollete eta errazioak. Domeketan rabak eta askotariko errazioak.

 @gauargitaberna

ZORNOTZA

XIBERU



Zeilia Gallartzagoitia, 9
Tel.: 946 181 758

Gosari bereziak egunero, pintxopotea ostegunero eta afariak astebururo. Giro alai eta atsegina. Ongi etorri Xiberura.

 Xiberu Taberna
 @xiberutaberna

DURANGO

BASA Eroateko janaria



Untzillatx, 9
Tel.: 747 421 104

Eguneko menua edonora eroateko prest, gure sukaldean bertako produktuekin prestatuatako plater gozo-gozoak. Begiratu gure instagramean.

 @basa.durango





DURANGO

OLAJAUREGI



Kurutziaga, 52
Tel.: 946 200 864

Eguerdian asteazkenetik igandera (13:00-15:30)
-Eguneko menua 19,90€
-Dastatzeko menua 45 €
-Karta
Gauean ostegunetik larunbatera (20:00-22:30)
-Mokadu karta
**TERRAZA ZABALIK: 12:00 - 00:00

 Hotel Olajauregi
 @hotel_olajauregi_jatetxea



Durangoko energia komunitatearen berbaldi bat. DURANGOKO ENERGIA KOMUNITATEA

Energia komunitatea sortzeko prozesua hasi dute Durangon

Apirilaren 2an ipiniko dute prozesuko lehenengo harria, Maristak ikastetxean, 18:30ean egingo duten topaketan

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko herritar talde bat antolatzen hasi da energia komunitatea sortzeko, eta bide orri bat markatu dute hemendik aurrerako lanketak egiten joateko. Prozesuko lehenengo harria apirilaren 2an ipiniko dute, Maristak ikastetxean. Bertan, energia komunitateen ezaugarriak, funtzioak eta egiturak aztertuko dituzte, besteak beste. Hortik aurrerako lanketetan, autokontsumorako aukerak, lantaldeak eta eginkizunak, eta ezaugarri juridikoak aletuko dituzte.

Egitasmoaren bultzatzaileek beharrezko formakuntza eta eztabaidak egin gura dituzte, herrian "energia burujabetzarako pausoak" emateko. Era berean, "energia berriztagarriak sortzea eta horiek komunitatean banatzea" dutela helburu azaldu

dute. Gaineratu dutenez, azkenaldian hainbat bilera egin dute herriko eragileekin, "proposamena kontrastatu eta euren ekarpenak" jasotzeko.

Parte hartzeko deia

Energia Trantsiziorako Durangoko herritar taldeak dinamizatuko ditu bilera sortak, eta, taldeak iragarri duenez, saio guztietan Goiener izango dute bidelagun. Antolatzaileek herritar guztiak deitu dituzte prozesuan parte hartzera: norbanaoak, elkarteak, eskolak, enpresak eta erakundeak. Gaineratu dutenez, Euskal Herrian geroago eta Energia Komunitate gehiago dago, baita Durangaldean ere. Adibidez, Elorrión eta Otxandion dagoeneko badituzte martxan energia komunitateak. Abadiñon eta Zaldibarren egiturak sortzen dabilta.

Apirilean kaleko argiak aldatzen hasiko dira Otxandion

Eguzki enpresa arduratuko da lanez, 98.537 euroko aurrekontuagaz. Boladun 143 farolak ordeztuko dituzte

Aitziber Basauri OTXANDIO

Kale argiteria aldatuko dute Otxandion, efizientzia energetikoa hobetzeko helburuagaz. Udalak herrian dauden 143 farola boladunak kenduko ditu, eta, horien ordez, argi gehiago emango duten farola berriak ipiniko dituzte. Udalak Eguzki S.L. enpresari esleitu dizkio lanak, eta 98.537 euroko aurrekontua izango dute horiek aurrera eramateko.

Kale argi berriek 57.281 kWh gutxiago kontsumituko dute urtean, eta 28,64 tona CO2 gutxiago isuriko da. Era berean,

aldaketa horregaz 14.320 euro aurreztuko dituzte. Udal arduradunek azaldu dutenez, datorren apirilean hasiko dira kale argiak ordezkatzeko.

Diru laguntza

Lanen gastuei aurre egiteko, Otxandioko Udalak diru laguntza eskatu zuen Bizkaiko Foru Aldundian. Bada, energia eraginkortasuna sustatzeko ekintza izanik, Aldundiak inbertsioaren % 80 ordainduko du. Udalak 64.000 euroko diru laguntza jaso du kaleko argiteria aldatzeko.



Herrian dauden boladun 143 farolak ordezkatzeko dituzte. OTXANDIOKO UDALA

Zaldibarko Euskaraldiak bere hamaikakoa aurkeztuko du gaur

Udalerriko hamaika enbaxadoreak aurkezteko ekitaldi publikoa udaletxeko plazan izango da, 18:30ean



Euskaraldiaren aurkezpen bat, Zaldibarren.



Mainondoko igerilekua. OTXANDIOKO UDALA

Igerilekua kudeatzeko lizitazioa zabaldu dute

Otxandioko Udalak 58.230 euroko aurrekontuagaz atara du lehiaketa publikoa

A.B. OTXANDIO

Udalak lehiaketa publikora atara du Mainondoko igerilekuaren kudeaketa, 58.230 euroko aurrekontuagaz. Urtebeterako kontratua izango da, beste hiru urtez luzatu daitekeena. Aukeraturiko proposamena egin duena igerilekuaren zaintzaz, sorosletza zerbitzuaz eta tabernaren kudeaketaz arduratuko da. Berdegunearen mantentzea atara dute lehiaketatik, bada-goelako herriko berdegune guztien mantentze-lanez arduratzen den enpresa. Igerilekuk ekainaren 15etik irailaren 15era egongo da zabalik.

E.H. ZALDIBAR

Elkar mugituz egingo dugu! dio Euskaraldiko mezuak, eta, apurka-apurka, data heldu ahal, halantxik dabilta Durangaldeko herrietako batzordeak, mugitzen, ekitaldiak antolatzen eta udalerrikako hamaikakoak aurkezten, baita Zaldibarren ere. Izan ere, gaur, hilak 28, bertako Euskaraldiko batzordeak herriko hamaika enbaxadoreak aurkeztuko ditu jendurrean. Ekitaldi publikoa udaletxeko plazan egingo dute, 18:30ean.

Bestalde, Euskaraldiko hitzordua baino lehenago, herritarrek beste zita bat ere izango dute aukeran: 17:00etan, Txalopin Txalo kantu liburuaren aurkezpen ekitaldia liburutegi zaharrean Berbaro euskara elkartearen eskutik.

Prozesurako bost hitzordu

Proiektuaren bultzatzaileek bost lansaio antolatu dituzte, energia komunitateari forma ematen joateko. Horien funtzioaz, egitura posibleez, ezaugarri juridikoez eta udalerrian garatu daitezkeen proiektuez arituko dira, besteak beste. Lehenengo hitzordua apirilaren 2rako egin dute, Maristak ikastetxean. Bertan, energia komunitateak zer diren definituko dute. Apirilaren 29an, autokontsumo partekatuari buruzko aukerak aztertuko dituzte San Antonio ikastetxean. Maiatzaren 14an lantaldeak eratuko dituzte Ibaizabal ikastolan, eta hile bereko 28an ezaugarri juridikoak aletuko dituzte Zabalarran. Azken hitzorduan, prozesuaren ondorioez berba egingo dute. Oraindino zehaztu barik dute jardunaldi hori non izango den. Hitzordu guztiak 18:30ean izango dira.

Okm: batzen gaituen distantzia

anboto
kide

BERRIA!

BED 'S

- Momentuko deskontuaren gainean %5eko deskontua.

EILEKE

Psikologia, neuropsikologia, logopedia eta psikomotrizitatea

- %15eko deskontua saio solteetan.

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

- %10eko deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

ETXEDREAMS

- %10eko deskontua dendako produktu guztietan.

GAU-TU

- Dendako ehun guztietan %10eko deskontua, eta 500 €-tik gorako erosketetan %5eko deskontua atseden sistemetan.

HITZ LIBURU-DENDA

- %10eko deskontua euskarazko liburuetan.

HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

- %15eko deskontua sarreran.

HONTZA MUSEOA

- %50eko deskontua sarreran.

IURRETA KOPISTEGIA

- %5eko deskontua eskola eta bulego materialean.
- %5eko deskontua musika, opari eta liburuetan. Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

KEINU OPTOMETRIA ZENTROA

- Armazoizko lenteetan eta eguzkitako betaurrekoetan %10eko deskontua.

KIROL ERROTA GIMNASIOA

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

LANDAKO OPTIKA

- %15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean eta armazoi eta lenteetan.

LA PERLA

- %15eko deskontua sasolan jartzeko talaso zirkuituan.
- %10eko deskontua osasun, lasaitasun eta edertasuneko banakako tratamenduetan.

MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

- %5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan.

NAIA GORROÑO HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta erradiografiatan.

NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

- %5eko deskontua produktu guztietan.

OSASUN ETXEA

- Zatoz Osasun Etxera eta ~~doako ebaluazio bat~~ egingo dizugu zure gantz, eta muskulu-masaren portzentajearen berri emateko. (Novaline)

PSIKOLOGIA AMOREBIETA

- %20ko deskontua zerbitzu guztietan.

SOLOZABAL ALTZARIAK

- Denda eta erakusketako produktuetan %10eko deskontua (etxeke aire-gozagarrietan izan ezik).

TABIRA BITXIDENDA

- %5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan.

URALDE HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta erradiografiatan.

URKIOIL GASOLINDEGIA

- Izurtzako eta Otxandiloko Urkiolil gasolindegietan 3 zentimoko deskontua litroko.

URRIKE LIBURU-DENDA

- %5eko deskontua liburuetan.
- %10eko deskontua papergintzan.

URTXINTXA JOSTAILU DENDA

- %5eko deskontua erosketen guztietan.
- %10eko deskontua 100 €-tik gorako erosketetan.

ZELAI ALAI

- Udalekuetan %10eko deskontua.



Atera etekina txartelari!

**Egin zaitez
Anbotokide:
946 816 558**

Deitu eta
eman izena!



**anboto
kide**

Anbotokideen
txokoa

**APIRILEKO
ZOKKETAK**

*Zokketa hauetan
parte hartzeko eman
izena gure webgunean.



Errigoraren eskutik
Euskal Herriko
produktuen otzara.



Xiberu tabernan
bi gosari bikoitz.
Zornotza.



Basa: Basa take
away jatetxeko
eguneko menu bat.

IRABAZLEAK

Pirritx eta Porrotx-en jaialdirako sarrerak:

Ander Gutierrez
Maria Angeles Altube

Basa Take Away jatetxeko bonua:

Aitor Duñabeitia

Xiberu tabernan gosari bikoitza:

Maialen Zuazubiskar
Leire Darretxe

Okm:

batzen gaituen
distantzia

Egin zaitez Anbotokide
eta parte hartu gure
zokketetan!



Mikel Urrutia eta Edurne Maguregi TAO sistema azaltzeko prentsaurrekoan.

Egoiliarrentzako gunea, Abadiñon matrikulatutako ibilgailuentzat

Maiatzean egoiliarrentzako guneen proba pilotua martxan ipiniko dute Traña-Matienan; doakoa izango da

M.Z. ABADIÑO

Autoa Traña-Matienan aparkatzea arazo bihurtu da herritarrentzat, eta Abadiñoko Udalak soluzio bat eman gura dio horri. Hori horrela, maiatzaren amaieran proba pilotu bat martxan ipiniko dute aparkalekuak egokitzeko egoiliarrentzat. Proba pilotu hau urtarriaren 1era arte egongo da indarrean, eta gunea berri hauek auzoan izango duten eragina aztertzea da asmoa. Gunea hauetan, Abadiñon matrikulaturiko ibilgailuek aparkatu ahal izango dute, doan. Baldintzak betetzen dituzten herritarrei etxera bidaliko diote autoan ipintzeko pegatina.

Bestalde, salbuespeneko kasuetan behin-behineko baimena eskatzeko aukera ere egongo da. Besteak beste, senideren baten zaintza lanak egin behar direnean edota *renting* autoak dituztenak ohiko gidariak direla demostratzen denean. "Aparkalekuaren proble-

matikari konponbidea ematea da gure helburua, Zubibitarten aparkaleku bat egiteko lanak aztertzen ditugun bitartean. Proba pilotuaren ondoren, herritarrekin elkarlanean hartu beharko ditugu erabakiak", adierazi du Mikel Urrutia alkateak. Horrez gainera, auzoko komertzioei eta ostalariei bultzada emateko, egungo TAO sistema Zubibitarte eta Trañaetxoste kaleetara zabalduko da. Kale horietan ordubetaz aparkatu ahal izango da. Era berean, merkatari eta ostalariek gunea hauetan aparkatu ahal izango dituzte euren jardunerako ibilgailuak lanean dabiltzan bitartean. "Badakigu zein garrantzitsua den merkataritza eta ostalaritza Abadiñorentzat. Berregituratze honetan, xehetasun guztiak kontuan izan ditugu, inorentzat eragin negatiborik izan ez dezan", gaineratu du Edurne Maguregi alkateordeak.

Greziako errefuxiatuentzat makarroi bilketa Mallabian

Lesbosen dauden errefuxiatuei elikadura egokia eskaintzea da Zaporeak elkartearen ekimenaren helburua

M.Z. MALLABIA

Mallabiko Udalak bat egin du Zaporeak elkarteak antolatutako janari bilketa solidarioagaz. Udalak jakinarazi duenez, Zaporeak elkarteak bultzatzen duen Lesbos proiektuak Gre-

ziako uhartean dauden errefuxiatuei elikadura egokia eskaintzea da asmoa. Hori horrela, herrian makarroiak jasotzen ibili dira aste osoan zehar. Kanpainagaz bat egin gura dutenek gaur izango dute azken aukera

Abadiñoko Udalak Astolako igerilekuko araztegia berriztuko du

M.Z. ABADIÑO

Abadiñoko Udalak Astolako igerilekuko araztegia berriztuko du. "Arazketa sistema berriztuta, Astolako instalazioen beharrezan nagusietariko bati erantzuna emango diogu, aurreko legealdian egin ziren berrikuntzetan ez zen arazketa sistema kontuan hartu eta", azaldu dute udal ordezkariak. Udalak hamazazpi asteko epea aurreikusi du lanetarako, eta 4 bat astean ezingo da igerilekua erabili, udako denboraldi amaieratik 2025-2026 ikasturte hasierara arte, gutxi gorabehera. Guztira, 358.485 euro erabiliko dituzte honetarako, eta obra egiteko interesdunek apirilaren 7ra arte aurkeztu ahal izango dituzte euren proposamenak.

Astehenera arte eman daiteke izena Salto! udalekuetan

M.Z. MALLABIA

Martxoaren 31ra bitartean, Mallabiko gazteek aukera dute UEMAK antolatutako Salto! udalekuetan izena emateko. Ekimen hau 2007. eta 2010. urteen artean euskal udalerrietan jaiotako gazteei zuzenduta dago. Euskararen erabilera sustatzea eta hizkuntza kontzientzia indartzea da, besteak beste, helburua. Izen ematea *uemaeus* webgunearen bitartez egin daiteke.

Udalekuak txanda bitan egingo dituzte; bata ekainaren 22tik 30era izango da, eta bestea uztailearen 2tik 10era. Baliarrainen hasiko da ibilbidea, eta Zaldibia eta Ataun zeharkatu ondoren, parte hartzaileak Idiazabalera ailegatuko dira.

euren aletxoak ipintzeko. Udalletxean eta eskolan egiten dabilta bilketa.

Tuper solidarioa

Bestalde, Mallabiko Udalak azaldu du bihar emango diotela amaiera kanpainari, mar-txoak 29, Ermuan, 'Tuper Solidarioa' ekimenagaz. 14:00etatik 15:00ak bitartean, Ermuko Orbe Kardenalaren plazara bertaraten direnek tuper bete janari erosi ahal izango dute bost euroren truke.

Bizkaiko Bertsozale Gazteen Eguna ospatuko dute Iurretan

Bertsozale gazteek elkar ezagutzea du helburu ekimenak; bertso poteoa eta bazkaria antolatu dituzte

Aitziber Basauri IURRETA

Bizkaiko Bertsozale Gazteen Eguna ospatuko dute martxoaren 29an, zapatuan, Iurretan. Lehenengoz ipini dute martxan ekimena, bertsozale gazteek elkar ezagutzeko eta euren ar-

teko hartu-emanan sendotzeko helburuagaz. Bizkaiko Bertsozale Elkarteak lagunduta antolatu dute eguna.

Askondoko arkupean egingo diete harrera Iurretara joango diren bertsozale gazteei,

12:00etan. Jarraian, musikaz giroturiko bertso poteoa egingo dute. Eguerdirako bertso bazkaria prestatu dute. Montoste elkartean batuko dira, 15:00etan. Aitor Etxebarriazarraga gernikarrak eta Iruri Altzerreka garaitarrak egingo dute bertsoan.

ASKONDON EGINGO DIETE HARRERA BERTSOZALE GAZTEEI



Iazko Bertsolari Gazteen BBK Sariketako finalaurrekoa.

Iurretako Axmokil mendian buzoia ipiniko dute domekan

Iurretako Kofradien Batzordeak, Zaldai Mendi taldeak eta Maiztegi guraso elkarteak mendi irteera antolatu dute

Aitziber Basauri IURRETA

Domekarako irteera antolatu dute Axmokilera (410 m), Iurretako bigarren mendirik altuena. Mendiko tontorrean buzoia ipiniko dute. Iurretako Kofradien Batzordeak, Zaldai mendi taldeak

eta Maiztegi guraso elkarteak ibilbide bi prestatu dituzte tontorrera igotzeko.

Kofradiek Laixiarrera bidean duten eraikinean (Baskulan) hasiko da ibilbide luzea, 10:00etan. Hala ere, bertara joatea gatz

du tenentzat aurretik ipini dute hitzordua, plazan, 09:45ean. Bertatik elkarregaz joango dira Baskularaino. Ibilbide laburra egin gura dutenak Laixiarzelain batuko dira, 10:45ean. Axmokil tontorrean elkartuko dira denak, 11:15ean buzoia ipintzeko.

Bueltan, mendizaleek luntxa izango dute Laixiarzelain. Eguraldiak laguntzen ez badu, San Markoko txokoa elkartuko dira. Izena emateko, laixiarzelai@gmail.com helbidera idatzi daiteke.

Garaiko Nagusiak Artziniegara joango dira txangoan

E.H. GARAI

Garaiko nagusien elkarteko ki-deak Arabako Artziniega herri-ira joango dira txangoan. Irteera zapatu honetan egingo dute, martxoak 29. Egun osoko egitaraua prestatu dute horretarako. 08:30ean irtengo dira herritik, Garaiko plazatik, autobusean. Behin Artziniegara ailegatuta, 10:15ean, bisita gidatua izango

dute udalerriko Alde Zaharra ezagutzeko. Ondoren, museoa bisitatuko dute, eta 14:00etan elkarregaz bazkaldu egingo dute. Arratsalderako ere badute plana: 17:00etan *La Encina* Arteko Amaren Santutegia bisitatuko dute.

Artziniega ondare historiko handi eta aberatseko udalerria da eta Arabako ekialdeko ertzean dago, Aiaraldeko Iurretan, Gordexolagaz (Bizkaia) eta Burgosko Iurrekin (Espainia) mugan.

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA, KOOP. E.

Goi Mailako

Heziketa Zikloak

- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia
- Automatizazio eta Robotika Industrialia

Espezializazio ikastaroa

- Industria Mantentzearen Digitalizazioa
- Eragiketa-teknologiaren Inguruneetako Zibersegurtasuna

TALENTU PROFESIONALA

eskolatik - industriara

ATE IREKIAK



Apirilak 5
Maiatzak 10

11:00etan

664298683 // 664298704

"Euren ingurunearekiko lotura handia sumatu dut"

MIREN ARTETXE SARASOLA BERTSOLARIA ETA IKERLARIA

'Geuretik sortuak' egitasmoaren barruan, Miren Artetxek egonaldia egin du Atxondon. Hemen bizitakoa ipuin bat sortzeko inspirazio iturri lez erabiliko du hendaia

Joseba Derteano ATXONDO

Hilabete eman du hemen, Olazabal-Azpikoa landetxean. Atxondon ikusi eta bizitako esperientziak herrian kokaturiko ipuin bat sortzeko baliatuko ditu Artetxek. Egonaldiagaz oso pozik dago eta aberasgarria izan dela dio.

Egonaldiaren zer balorazio egiten duzu?

Oso ona eta aberasgarria izan da. Luxu totala izan da, bai lekuagatik, bai jendearen harrengatik, eta baita sorkuntza proiektu batean hiru astez murgilduta egoteko aukera eskaini didalako ere, hori ez baita ohikoa.

Apunteen koaderno baterik darazazu?

Egia esan, apunteen koaderno bete-beteta daukat, bai. Jasotako gehiena ez dut zuzenean erabiliko, baina baliagarria izango da ipuina hemen kokatzeko. Hemengo lekuak eta bizimodua ezagutzeko balio didate.



Miren Artetxe, Olazabal-Azpikoa landetxean.

Azkenean, egonaldiaren helburua horixe zen, zelanbait esanda, herriko esentziagaz blaitzea.

Hala da, bai. Kontua da ez dagoela esentzia bat eta bakarra. Esentzia asko dago, jende eta bizimodu asko, ikusi ahal izan

dudanez. Ipuina aniztasun horren barruan kokatuko dut.

Atxondon egindako egonaldi honekin, zerk harritu zaitu gehien?

Egon naizen jendearen partetik, bere ingurunearekiko lotura handia sumatu dut. Beste toki

batean, beharbada, zure bizimodu lekutik aparteago egin dezakezu, baina hemen halako inguru naturala izanik, paisaia horren oso kontzientze direla ikusi dut, eta inguru hau asko baloratzen dutela.

Zer ekintzatan parte hartu duzu? Zer jendegaz egon zara?

Eneritz Agirre alkateak asko lagundu dit jendearengana hurbiltzen. Ea denekin gogoratzen naizen. Asuntze mendi taldearekin irteera bat egin nuen eta hara batutako jendearekin egon nintzen. Arrazolako meategi inguruak bisitatu genituen. Amillen anasteazkenetan briskan aritzen den talde batekin egon naiz; Joseba Sarrionandiak gidatzen eta liburutegiak dinamizatzen duen irakurle taldearekin egon naiz; Buztenikerak talde feministarekin eta Plazerkekeriak zikloa antolatzen dutenekin egon naiz; herriko emakume heldu birekin kafea hartu dut; Jesus Eguzkiza 'Eguzki' bikoiztailearekin egon naiz; baserriko bateko beste familia batekin ere bai. Eta, atzo, Alaia Martin bertsolariak eta biok bertso dastatze bat izan genuen Amillen. **Gura zenuen denekin egon zara?**

Segiko nuke kontuak entzuten. Batzuetan ikusezina izan eta han eta hemen egon nahiko nuke; entzuten, batez ere.

Etorri aurretik zeneukan eskema eta egonaldiaren ostean duzuna berdinak dira, ala aldatu egin da? Askok aldatu da, egia esan. Nire

hasierako ideia nire familian gertatutako heriotza baten ingurukoa zen. Edozein testuingurutara erabat moldagarria zela pentsatzen nuen, baina nire bizipen pertsonal horretara lotuegi nagoela konturatu naiz eta hura hona ekartzea tranpa egitea izango zela, nahiz eta hemengo tinteak eman. Orduan, erabat zerotik hasitako ipuin bat izango da. Artolara mendi buelta bat egin eta gorako eta beheko bidean halako zantzu batzuk ikusi nituen, eta horri tiraka nabil.

Hizkuntzari dagokionez: Atxondoko berbak, esaerak... alde horretatik egonaldi aberasgarria izan da?

Bai, hiztun batzuek ahozkoatsuna oso bizirik dutela ikusi dut, eta oso aberatsa dutela. Nahi baino gutxiago egon naiz adineko jendearekin, baina badaukat asmoa horri buruz gehiago jasotzeko, badelako hori nire kezketako bat, nire euskalkia ez baita hemengoa. Ahotsak.eus atarian badaude Atxondoko jendearen pasarte batzuk eta haiek behin eta berriz entzuten aritu naiz.

"HASIERAN NUEN IDEIA ASKO ALDATU DA. ZEROTIK HASITAKO IPUIN BAT IZANGO DA"

Hamabi bikote sailkapenaren bila Mañariko txapelketan

Erabakita dago pilota eta pala txapelketetan zeintzuk partidu jokatu diren apirilaren 4an eta 5ean

J.D. MAÑARIA

Mañariko Kafra elkarteak eta Artatzagan pilota klubak antolatzen duten pala eta pilota txapelketetako lehenengo faseko partiduak erabakita daude. Apirilaren 4an, 17:00etan, partidu bi jokatu dira: Laka-Azcune / Gerricka-Kano eta Zumeaga-Barrainkua / Arzubia II-Arteaga. Irabazleek aurrera jarraituko dute eta galtzaileak kanporatuta geratu dira. Beste hainbeste egongo da jokoan hurrengo egunean, apirilaren 5ean, 10:00etatik aurrera jokatu

diren lau partiduetan. Arkarazo-Gallastegi / Derteano-Azueta bikoteen arteko partiduagaz hasiko dute eguna. Ondoren, Agirrebeitiak eta Diazek Arteaga III.aren eta Uribarriren aurka jokatu dute. Jardunaldiko beste partidu biak honako hauek dira: Egia I-Egia II / Arana-Mendia eta Alberdi-Urbe / Arteaga II-Arzubia I.

Sailkatzen direnek apirilaren 11n jokatu dituzte finalerdiak. Finalak Albokanrolla ekimenaren barruan jokatu dira, ekainaren 14an.

Izurtzako 'Herri txiki, infernu handi' egunean filmatuko dute

Aste honetan grabazioak egin dituzte hainbat herritarregaz, eta saioa apirilaren 3an filmatuko dute



Izurtzan egindako grabazio bateko irudia. ORIO PRODUKZIOAK

J.D. IZURTZA

Euskal Telebistako *Herri txiki, infernu handi* saioa Izurtzara heldu da. Saioko lantaldea Izurtzan ibili da aste honetan, hainbat herritarregaz grabazioak egiten eta herriko bitxikeriak jasotzen. Hurrengo pausoa izurtzarrekin batera programa filmatzea izango da, eta horretarako ez dago askorik itxaron beharrik. Grabazioa datorren asteko egunean (apirilak 3) egingo dute, 20:30ean, herriko plazan. Eguraldi iragarpene egokia ez bada, filmazioa pilotalekuan izango dela aurreratu dute.

Ohiko moduan, telebista saioak hainbat osagai izango du: herritarrekin egindako bideo proiektzioak, Miren Nogalesen eta Mikel Pagadiren bakarrizketak eta Sebastian Lizasoren bertsoak.

Oraindik ez zara ANBOToko whatsapp taldeko kide?

Durungaldeko azken
albisteak jaso gura
badituzu batu Anbotoko
whatsapp kanalera



**Eskaneatu
QR kodea**

* Izan zaitez berriemaile ere.
Bidali zure argazki eta bideoak



San Pio kalearen birgaitzea, hurbilago

Elorrioko arteria nagusia den San Pio kalea goitik behera aldatuko da lan hauen ostean; noranzko bakarreko kale bihurtuko dute, espaloiak zabalduko dituzte, eta oinezkoek lehentasuna izango dute; udalak 1.900.000 euro erabiliko ditu lanetarako

A. M. ELORRIO

Aste honetan aurrerapauso handia eman dute Elorrioren, bertako sarrera eta arteria nagusietariko den San Pio kalearen birgaitzeari ekiteko. Maria Herrero Hirigintza zinegotziaren esanetan, Elorrioko Udalak 2008tik du proiektua egitekoen artean, baina proiektuaren "tamainaren eta kostuaren ondorioz" atzeratzen joan da legegintzaldirik legegintzaldi. Martitzeneko osoko bilkuran 2.200.000 euroko kreditua onartu zuten, aho batez; 1.900.000 euro izango dira San Pio kalearen birgaitzerako. Noranzko bakarreko kale bihurtuko dute, espaloiak zabalduko dituzte eta zoladurak eta hiri-altzariak egokituko dituzte, oinezkoek lehentasuna izan dezaten. "Elorrioko sarrera nagusia da eta txarto dago, ez da atsegina bertatik ibiltzeko. Espaloiak ez dira irisgarriak, trafiko bolumen handia du, eta, gainera, segurtasuna ez dago bermatuta. Kreditua izapidetuta, beste urrats bat eman



San Pio kalea.

dugu elorriarrekiko dugun zor historiko hau kitatzeko", azaldu du Herrerok. Mailegua epe luze-rakoa dela azaldu du udalak, eta interesak likidatzeko eta amortizatzekeo epea hamabi urtekoa izango dela.

Bestalde, Buzkantz kalean hodiern sistema eta espaloiak berriztuko dituzte, eta, horretarako, 300.000 euro erabiliko dituztela azaldu du udalak. Lanak udaberriaren hasiera aurrerakosten du udalak.

Euskaraldiaren hamaikakoa aurkeztu dute Elorrioren

Izen emate kanpaina hasita, Euskaraldiaren hamaikakoa eta enbaxadore taldea aurkeztu dituzte Elorrioren



Elorrioko hamaikakoa.

A. M. ELORRIO

Durungaldeko herrietan hasi dira motorrak berotzen maiztaren 15etik 25era bitartean egingo den Euskaraldia prestatzeko. Dagoeneko eman daiteke izena ariketa sozialean Ahobizi edo Belarriprest lege parte hartzeko, eta herrietan beste ekimen batzuk ere egiten dabilta.

Elorrioren, adibidez, hamaikakoa aurkeztu eta talde argazkia atera dute. Hauek dira Elorrioko Euskaraldiaren enbaxadore izango diren herritarrak: Irati Alberdi, Manex Basabe, Arantza Apraiz, Izaskun Medina, Patxi Aranberri, Inma Gallego, Edu De la Cruz, Xabi Malatsetxebarría, Gontzal Murgoitio, Julene Lazkano, Oier Irazabal, Jone Garaizabal, Alazne Arando eta Mikel Quesada.



Hegoi Eskudero, Josu Albizuri, Maite Azpitarte eta Erramun Osa.

Liztor asiarraren aurkako jardunaldiak aurkeztu dituzte

lazko arrakasta ikusita, berriro egingo dituzte liztor asiarraren aurkako prestakuntza jardunaldiak

Aritz Maldonado BERRIZ

Liztor asiarra harrapatzeko saioirik onena udaberria dela iritzita eta iazko kanpainaren arrakasta ikusita, Erle elkarteak eta Urkiola Landa Garapenak liztor asiarraren aurkako prestakuntza jardunaldiak antolatu dituzte aurten ere. "Iazko ekinaldian 10.000 liztor baino gehiago harrapatu ziren sasoi berean", nabarmendu du Erramun Osa Urkiola Landa Garapeneko presidentek. Kanpainaren onuradunak, herritarrak ez ezik, inguruetak gainerako espezieak ere badira, eta baita erlezainak

ere. "Ekimen honegaz, sentitzen dugu ez gaudela bakarrik. Aurretik norbanakoak ere izan ditugu laguntzen, baina orain, sare honegaz, askoz ere babes-tuago sentitzen gara", azaldu du Hegoi Eskudero erlezainak. Martxoaren 31n berbaldia emango dute Zornotzan, eta hurrengo egunean Zaldibarren. Bertan, liztorrak harrapatzeko tranpak eta likidoa banatuko dituzte, bina boluntarioko. Josu Albizuri eta Maite Azpitarte boluntario aritu ziren iazko ekinaldian, eta herritarrak parte hartzera animatu dituzte.

Urritxen harrera egin diete Erasmus+ programako ikasleei

Italiatik, Frantziatik eta Baionatik etorri diren ikasleak jaso dituzte Urritxen Erasmus+ ekimenaren barruan

A. M. ZORNOTZA

Zornotzako Urritxe ikastetxeak Italiatik, Frantziatik eta Baionatik etorri diren ikasleak jaso ditu Erasmus+ ekimenaren barruan. Bertako ikasleak kulturartekotasuna lantzen dabilta eta hainbat jardunaldi egin dute aste osoan zehar. Besteak beste, Guggenheim Museoa, Gernikako Batzar Etxea eta Bakearen Museoa, eta Gaztelugatxeko Doniane ermita ezagutu dituzte. Laster, Zornotzako ikasleak Italiara bidaiatuko dute. "Agian orain ez duzue guztiz ulertuko,

baina ziur nago esperientzia ahaztezina biziko duzuen, ez bakarrik akademikoki, baita pertsonalki ere. Beste herrialde batzuk ezagutuko dituzue, beste kultura batez ikasleekin elkarrekin eta beste hizkuntza bat praktikatzeko aukera izango duzue", azaldu zien Ainhoa Salterain alkateak ikasleei harrera ekitaldian. "Esperientzia honetako momentu bakoitza ondo aprobetxatzera animatzen zaituztet, baita gure kultura eta ohiturak gertutik ezagutzera ere", gaineratu zuen jarraian.



Ikasle ohiek adi jarraitu zioten. U.A.



Beteranoenek loreak jaso zituzten. U.A.



Etzanobe eta Elkoroiribe. UNAI ARREGI



Ikaskide izandakoen artean ez zen irribarrerik falta izan, ezta lorerik ere. UNAI ARREGI



Durangoko Orfeoia bere alea ipini zuen ekitaldian. UNAI AGIRRE



Dani Irazola ikastetxeko zuzendaria. U.A.



Argazki zaharrak ikusgai izan ziren. U.A.



Aspaldiko pasadizoak gogoratzeko tarte egon zen ekitaldian. UNAI ARREGI

Maristak ikastetxea, lehengo eta oraingo ikasleen topaleku

Durangoko Maristak ikastetxeak bere 120. urteurrena ospatzeko ekitaldi sorta antolatu du ikasturte honetan. Joan zen zapatuan, jendaurreko ekitaldi publikoa egin zuten. Ikasle beterrano ugari batu zen bertan. Garai zaharrak gogoratu eta ikastetxearen izaera nabarmendu zuten

Aritz Maldonado DURANGO
Durangoko Maristak ikastetxea bere 120. urteurrena ospatzen dabil ikasturte honetan zehar. Joan zen zapatuan, ekitaldi berezi bat egin zuten ikaslerik beterranoenak omentzeko. *120 urte hazten eta hezten Durangaldean* izena ipini zioten ekitaldiari. Topaketan, Elixabete

Etzanobe Bizkaiko ahaldun nagusiak eta Mireia Elkoroi-

**EKITALDI BEREZI
BAT EGIN ZUTEN
IKASLERIK
BETERANOENAK
OMENTZEKO**

ribe Durangoko alkateak ere parte hartu zuten, besteak beste. Ikasle beterranoen eta gaur egungo ikasleen solasaldiez gainera, sari banaketa, argazki saioa eta luntxa ere izan zituzten. Hemendik aurrera ere izango dira ekitaldiak mende bat baino gehiagoko ibilbidea ospatzeko.



Asko hunkitu egin ziren ikasgela izandakoak bisitatuta. UNAI AGIRRE

Landa eremuko emakumeei omenaldia

Joan zen astean, landa eremuko emakumeak omendu zituzten Iurretan. Euren omenezko plaka bat ipini zuten Askondo kalean, eta dantzak eskaini zizkieten. Ondoren, *Iurretako Landa Eremuko Emakumeak* dokumentalaren bigarren zatia proiektatu zuten.



Joan zen egunean egindako ekitaldia. IRATI OTADUI.

DURANGALDEA ASTEON

Euskaraldia martxan ipintzeko batzarra Atxondon

ATXONDO Euskaraldiaren laugarren edizioa maiatzaren 15etik 25era izango da eta izen ematea zabalik dago dagoeneko, bertan Ahobizi edo Belarriprest legez parte hartzeko. Atxondoko Udalak batzarra deitu du herrian Euskaraldia martxan ipintzeko. Udalak azaldu duenez, batzarra apirilaren lehen (martitzena) izango da, 18:30ean, udalbatza aretoan. Bertaratzeko gonbita egin diete herritarrei.



L'Atelierreko ikasleak Burgoseko txapelketaren amaieran. LÁTELIER.

L' Atelier eskolako dantzarien emaitza bikainak Orbe Burgos dantza lehiaketan

DURANGO Joan den asteburuan, 3.200 dantzarik parte hartu zuten Orbe Burgos dantza lehiaketaren hamabigarren edizioan. Aurten ere L'Atelier eskolako talde guztiek parte hartu dute dantza klasikoan, garaikidean eta urbanoan, eta emaitza bikainak lortu dituzte.



San Agustin aurrean hasi dira bizikletentzako aparkalekua egiten.

Bizipark aparkalekua egiten hasi dira Durangon

DURANGO Durangok bizikletentzako Bizipark aparkalekua izango du laster. Azpiegitura berria San Agustin Kulturgunearen parean egongo da eta ibilgailuok eremu estali eta zarratu batean aparkatzeko aukera eskainiko du, urteko egun guztietan. Guztira, 24 bizikleta gordetzeko lekua izango du eta zerbitzuak kontrol sistema informatikoa izango du, sartu-irtenak egin ahal izateko. Dagoeneko hasi dira azpiegitura eraikitzen.

GUTUNAK

Idatzi zure gutuna eta bidali!

Zure gutuna helarazteko helbidea: **Bixente Kapanaga 9 - Iurreta**
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO:
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta, Miren Abasolo Txabarri eta Xabier Lazkano Baseta.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala eta irati Otadui Maiztegi.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



LAGUNTZAILEAK



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Aritz Maldonado ZORNOTZA

Osa+Mujika Jaiotz Osaren eta Xabier Mujikaren arteko topaketa artistikoa da. Jantzigintza eta eszenografia dantzagaz batu, eta bertan mundu bakarra sortu dute. Hain zuzen ere, estilo propioa da euren lanen ezaugarri nagusietariko bat. Lanaren kulturen sakondu dute euren bosgarren sorkuntza den *Lana* obran. "Lan honek urtebeteko aurrelana izan du, adibidez; eta pentsa, lanaren % 50 baino dezentente gehiago da sorkuntza ez dena", nabarmendu dute.

Urte hasieran estreinatu duzue lana. Pozik?

Egia esan, pozarren gaude izandako harreragaz. Kontziente ginen oso gai unibertaria hartu dugula, gure esperientziatik abiatuta, nola arte eszenikoetan zenbat kentzen digun lanak, gure bizitza kolokan jartzeraino, baina gero konturatu ginen oso orokortua dagoen kontua dela. Ikusleek gaiagaz ondo konektatzen dutela ikusi dugu; oso harrera ona izan du eta denak bat egiten ari dira lana uzteko gonbitagaz (barrez). Pozik gaude, egia esan.

Afizioa ofizio bihurtu eta gero, neketik sorturiko obra da 'Lana'. Hala ere, pozik zaudete emaitzagaz. Deigarria egin zait hori.

Bai, guretzat ere horrela izan da. Sorkuntza lanagazko neke horretatik sortu genuen, lana utzi gura horretatik ekin genion piezari, iazko urte hasieran. Eta lehengo sustrai hori landatu genuenetik urte bat igarota, alde positibo gehiago bilatu diogu. Kontziente gara ogibide gogorra dela gurea, eta pozgarria da honetan lan egin ahal izatea; orain zentratu gara horietan. Baina dinamika gatz horietan murgiltzen hasi gara berrir. Oso gaxta da estreinaldi bat aurrera eramatea, saioak lotzea... Lan handia egin behar da diru laguntzak lortzeko, eta gero zain egon behar izaten dugu horiek jasotzeko. Hori dena hor dago, baina obra honek lagundu egin digu alde positiboetan apur bat gehiago zentratzen.

Eszenografiari, jantziei eta iruditegiari garrantzia ematea da zuen berezitasunetariko bat.

Identitate estetiko propio bat dugu, eta horrek lagundu egin digu hau garatzen. Beharbada, beste dantza edo antzerki konpainiek barruko lan guztia garatzen dute lehenengo, eta este-

"Dantza arte arrotza da; publikoari hurbildu gura diogu"

DANTZA Barikuan, 'Dana' dantza emanaldia ikusgai egongo da Zornotza aretoan, 20:00etan; Osa+Mujika konpainiaren lanik anbiziotsuena Durangon ere taularatuko dute, apirilaren 5ean; lanarekiko nekea da obraren abiapuntua



Rafke Van Houplines, Paula Parra, Maddi Ruiz de Loizaga, Adrian Bolaños eta Jaiotz Osa.

tika geroko uzten dute; gure kasuan, mundu biak hasieratik daude hor.

Lana izan arren, sorkuntza lan hori izango da alderik erakargarriena.

Dudarik barik. Estudioan gaudenean, soilik sorkuntzara begira, horixe disfrutatzen dugu gehien. Nekea eta frustrazioa beste aldetik datoz. Azken finean, konpainia txikia gara, eta dantza edo koreografiak lantzeaz gainera, posta elektronikoak bidali behar ditut, atek jo, telefonoetara deitu, ezetzak jaso, diru laguntza eskaerak egin... gauza asko. Eta horiek neke handia sortzen dute. Nire esku balego, bihar bertan hasiko nintzen zeozer berria sortzen. Azken finean, sortze prozesu hori eta emanaldiak dira aurrera jarraitzeko indarra.

la hogeiei emanaldiko bira duzue. Dantza garaikidea bazterretik irreten dabil?

Ez da ohikoa hainbeste emanaldi izatea, eta ondo dakigu hori. Askok disfrutatzen gabilta, ez dakigulako berrir gertatuko den. Gure helburua estreinaldia egitea zen, eta ordurako gainerako datak ere lotuta izatea; orain artean, estreinatu ostean

"IZAROGAZ BIDEOKLIPETAN LANEAN HASI GINEN; BIRAN DANTZARI BIZI ZATEN DITU ORAIN"

joaten ginen bira egituratzen. Orain aurrelana hori handitu zaigu, eta lortu dugu. Baina ez da ohikoa, dantza garaikidea periferiako zeozer delako oraindino. Kostatu egiten da programatua izatea, eta baita antzokia betetzea ere. Euskal Herrian badaude dantza garaikideari tartea egiten dioten antzokiak, sinesten dutenak dantza garaikideak ere egon behar duela programazioan. Guk lan handia egiten dugu dantza garaikidea arrotza izan ez dadin eta mezuak ulergarriagoak izan daitezen. Kontzienteak gara gurea arte arrotza dela, eta, horregaitik, lan handia egiten dugu publikoarengana hurbiltzeko. Dantza garaikidean asko begiratzen da barrura, zer egin gura dugun, zer sortu gura dugun, baina jendea antzokira joatea gura badugu, ikusle horiek ere kontuan izan behar ditugu; bestela, nitxo izaten jarraituko dugu. Askotan dantza adituentzat dantza egiten dugu, eta irten egin behar dugu hortik; bestela, ez da aurrerapausorik egongo. Geure eskura dagoen lana egin dezakegu, baina asko geratzen da egiteko hezkuntza aldetik, eskoletan eta. Guk bakarrik ezin dugu antzokietara dantza garaikidea ikustera joateko ohitura sortu.

Izaro Andres musikari mallaberragaz lan asko egin duzue azken sasoiari. Musikariak garrantzia ematen die koreografie?

Izarogaz *Cerodenero* proiektuagaz hasi ginen lanean, 2023an, koreografiak sortzen. Guretzat oso erronka polita izan da. Lanerako beste estruktura batzuk dira, beste ekipo batzuk, beste lan bolumen bat... Ederra izan da. Bideoklipekin hasi ginen, eta, izandako harrera ikusita, bere biran dantzari bi sartzea erabaki zuen Izarok. Gu ohituta gauden gehienez 100 lagun biltzen dituen emanaldietara, eta bat-batean 1.000 lagun guri begira ikustea eder-ederra izan da. Eta beragaz lan egitea oso polita da. Gabonetako diskoaren estetika ere landu dugu beragaz. Euskal Herriko musikak eraldaketa handia izan du; orain garrantzi handiago ematen zaio estetika-ri. Koreografiak eta eszenaratzeak indar gehiago dute, eta dantza asko ikusten da eszenan. Egia esan, gero ez da erraza ikusle berari antzokira dantza emanaldi bat ikustera erakartzea. Ea geroago posible den.

Ainhoa Urienek 'Ehun zaldi trostan' kaleratu du

LITERATURA Ainhoa Urien idazle abadiñarrak "nobela traza duen ipuin liburu" lez definitu du bere bigarren liburua; Ignacio Aldekoa literatura sorkuntzako beka irabazi osteko "bulkadagaz" idatzi eta publikatu du 'Ehun zaldi trostan', Elkar argitaletxeagaz

A. M. ABADIÑO

Ainhoa Urien (Abadiño, 1995) idazleak "nobela traza duen ipuin" lez definitu du *Ehun zaldi trostan*, bere azken sorkuntza. Oraintsu aurkeztu du, hain zuzen ere, Ignacio Aldekoa literatur beka irabazita idatzi duen liburua. "Ia urte bi pasatu dira lehenengo ipuinaren ideia izan nuenetik, eta ipuin hori ere *Ehun zaldi trostan* deitzea erabaki nuen", azaldu du Urienek. "Liburua ezin da ulertu lehenengo ipuin hori barik. Bertako giro, usain, hartu-emanek sorturiko unibertso horietatik sortu dira gainerakoak; autonomoak dira, elkarreraginean indar handiagoa duten arren", argitu du Urienek. Idazketa prozesuari buruz, idazteko izan duen denbora "mugatua eta baldintzatua" izan dela azpimarratu du. "Zerbait egiten ahalgindu banaiz, dialektika batzuk esploratzen eta atzean dituzten usteko dikotomiak kolokan ipintzen izan da", borobildu du aurkezpene Urienek. Apirilean Durango-



Ainhoa Urien.

ko Hitz liburu dendan aurkezpene egingo duela aurreratu du.

Arabako Foru Aldundiak, euskarazko literatura sorkuntza sustatzeko, ipuin modalitatean sortu zuen Ignacio Aldekoa beka; hain zuzen ere, Urienek 8.000

euro jaso ditu beka irabazita. Ainhoa Urienek 2020an kalera tu zuen bere lehenengo liburua, *Poesia zaurien ukendu* (Xabier Leteren arrastoan) saiakera. *Ehun zaldi trostan* narraziogintzan egindako lehenengo lana du.



'B.O.B.A.'. JIMENA CAVALLETTI

Apirilaren 18an egingo dute Durangoko Tontolapiko Eguna

KLOWN Ganso&Cia konpainiak eta San Agustin kulturguneak egun osoko egitaraua prestatu dute

Aritz Maldonado DURANGO

Topaklown jaialdiagaz, Ganso&Cia klown unibertsoa hurbildu zuen Durangora. "Topaklown jaialdiaren oinordekoa da Tontolapiko Eguna", azaldu du Cecilia Paganini Ganso&Cia konpainiako kideak. "Maratoia izateko bokazioz jaio zen, gainera", gehitu du Gorka Gansok. Durangoko Tontolapiko Egunaren laugarren edizioa apirilaren 18an egingo dute. Egun osoko egitaraua prestatu dute. 12:00etan hasita, bost emanaldi egingo dituzte: Karrikak *Parking-darrak* antzerki laburraren bost saio plazaratuko ditu; gainerako

konpainiak nazioartetik datoz: adibidez, Mundo Costrini (*Frikis*) Argentinatik eta Les Enfants sérieux (*Happy apocalypse to you*) Frantziatik. Ual-La talde katalanak (*Play*), eta Jjivema Cavalletti valentziarrak *B.O.B.A.S.* ikuskizuna. Arantza Arrazola San Agustin kulturguneko arduradunak lan guztien maila nabarmendu du. "Emakumeak horrelako roletan ikusteko aukera bikaina da, emakumei pailazoarena egitea askoz gutxiago barkatzen baitzaie gizonen baino", esan du; lanak MAX sarietarako izendatuta daudela gogoratu du.



GAI LIBREAN

MIREN ERDOIZA MUJIKA BEHARGINA

Etorkizuna ginenean

Elurrak zuriz jantzi ditu Durangaldeko mendiak azken egunetan. Igandea zifra bakarreko graduekin hasi da, eta Urkiolak Gran Via dirudi. Egin duzue topo batarekin eta bestearekin, agurtu dituzue aspaldiko ezagunak eta kontatu diozue elkarri gurutzatu berri duzuen tipoa zertaz eza gutzen duen bata eta nondik besteak.

"Saibira urteak igo barik", diotsu adiskideak. Zuk buruz dakizkizu parkingetik gurutze puntaraino dauden aldapak eta kurbak. Noiz hasten den harri txikiz osatutako pista eta noiz datozen animaliak pasatzeko ditzosozko kanadar pasabideak. Zenbaezinak dira mendi hau aitaren bizarretik igotako aldiak. Bere eskutik helduta ere makina bat aldiz igotakoa zara, eta umea izateari utzita ere, jarraitu duzu Saibigainetaz gozatzen.

Aurretik doan familiari intxaur poltsa bat jausi zaio puntara heldu orduko, eta makurtu bezain pronto, gogoratu duzu nola gurasoek kontatzen zizuten mendiaren lurretan zeuden zulotzar horiek behinola hegazkin batzue-

tatik jaurtitako bonbek eragindakoak zirela. Gogoratu duzu aitak aldiro errepikatzen zizuna: amama ume txiki bat zen. Zure amama imajina zenezakeen aitaren gibelean mendia igotzen, eskutik helduta, lagunekin intxaurrak jaten.

Hegazkin batzuetatik jaurtitako bonbek mendia zulatzea gehiegi zen ume baten iruditegirako, ordea.

Amamak, azken arnasa ematekotan zela, lasai hilko zela zioen, bere ilobek ez zutelako garaian berak bizitako infernua biziko. Jakin badakizu gu ziurrenik ez garaile gogoz hilko, eta (momentuz) ez dugula Mola bezalako sasikumerik ezagutu. Baina badakizu ere eskuin muturreko diskurtso eta jokabideek zeharkatzen gaituztela garaiotan: viva España!-ka entzun dituzu ikasleak pasabidean, migranteen eskubideen aurkako politikek albiste-gietako titularrak betetzen dituzte egunero. Gure amamek herriaren askatasunaren alde egin zuten borrokan. Orain, nahikoa zaigu norberaren zilborraren libertatearen aldekoak eginda.

Etorkizuna garela entzunez hazi gara, eta orain, etorkizuna baino oraina presenteago dugun adinean, amamak nola, lasai hiltzea baino gehiago, lasai bizitzea gura duzula pentsatu duzu. Ez duzu zure semea hiltzaile matxista bat izan dadin nahi, ez duzu zure bikotekideak San Mamesen marokoar bat jipoitzerik gura. Burutik pasatu ere ez zaizu egin gosez hil zaitezkeenik, baina beldurrek, desioek eta ametsek bezala, askotariko aldaerak dituzte. Eta beldur zara, noski zarena. Duela ia ehun urteko oinazeak gogorarazi dizu behinola herri honek asko sufritu zuela, eta garaian bezala antolatuta ez badago ere, faxismoa egon badagoela. Gure amamek nola, faxismoaren aurrian, konbikzioz eta indarrez armatuta egongo gara beti, ez baitago beste biderik. Aitaren bizkarretik erraldoiak ziruditen zuloek. Aitaren bizkarretik indartsua bezain goxoa zirudien amamak. Zuloak elurrez estalita daude, baina ez dira desagertu. Gure amamak ere ez. *Ezin dogu ahaztu, eta ez dogu ahaztu gura.*

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO
LEHENAGO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 28

ATXONDO Performancea

Marion Cruza eta Tripak kolektiboa.
Amillena bentan, 20:30ean.

DURANGO Erakusketa

'Formatik haratago' (Mikel Lertxundi).
Arte eta Historia Museoan, martxoan.

DURANGO Erakusketa

Aratz Azpiri eta Gerard Cullell.
Ezkurdi aretoan, apirilaren 6ra arte.

DURANGO Kontzertua

Kolpeka + Agur.
Rugby tabernan, 22:30ean.

IURRETA Ipuinak

'Haizeak daramana eta dakarrena' (Saioa Aizpurua).
Herri bibliotekan, 17:30ean (3-5 urte) eta 18:00etan (6 urtetik gora).

IURRETA Helduentzako ipuinak

'Hemendik eta handik hartutako ipuinak' (Saioa Aizpurua).
Herri bibliotekan, 19:00etan.

IURRETA Musika

Ander Zubillaga.
Korta tabernan, 20:30ean.

ZORNOTZA Dantza

'Lana' (Osa-Mujika konpainia).
Zornotza Aretoan, 20:00etan.

ZAPATUA 29

ABADIÑO Fast Fest Jaialdia

Meison + Zetkin + Nafra + Zikin + Grop + Flash + Chuleria Joder! + JMA.
Amaraun Arte Fabrikari (14:00-22:00).

IURRETA Irteera

Zaratamora bizikleta irteera. Iurreta Txirrindulari Elkarte.
Iurretan, 09:00etan.

IURRETA Bertsoak

Bizkaiko Bertsolari Gazteen Eguna. Harrera, 12:00etan, Askondon. Bertsoz giroitutako poteoa, 12:15ean. Bertso bazkaria, Aitor Etxebarriazarraga eta Iruri Altzerreka bertsolariekin, 15:00etan, Montoste elkarte.
Iurretan, 12:00etan hasita.

IURRETA Musika

Los Misterios.
Korta tabernan, 20:00etan.

ZORNOTZA Desfilea

Urritxe Golden Fest.
Zornotza Aretoan, 17:30ean eta 19:30ean.

ZORNOTZA Biribilketa

Durungaldeko Biribilketa Feminista. Bordatu tailerra (@loratien) eta tertulia feminista, 12:00etan. Pintxada feminista, 14:00etan.
Belatxikieta herrikoan.

DOMEKA 30

ELORRIO Antzerkia

'Elara bidaia bat izarretara' (Mar Mar Teatro).
Arriola antzokian, 17:00etan.

IURRETA Irteera

Marurira bizikleta irteera. Iurreta Txirrindulari Elkarte.
Iurretan, 09:00etan.



OMBLIGO

BERRIZ Kontzertua

Omblogo talde madrildarrak *Intrépido viaje a velocidad cero* lana aurkeztuko du Berrizen. Anika Sobrinok eta Angel Caceresek 2020an sorturiko taldeak askotariko musika estiloak fusionatzen ditu (swinga, jazza, folka...)
Martxoaren 29an, zapatua, Kultur Etxean, 19:00etan.

ASTELEHENA 31

ZORNOTZA Berbaldia

Liztor asiarraren arriskuaz kontzientzia hartzea. (Hizlaria: Jokin Agirregoikoa Erlete Eztiolako erlezaina).
Zelaieta zentroan, 18:00etan.

MARTITZENA 1

ABADIÑO Erakusketa

'La vida en el centro, una mirada feminista sobre la economía solidaria' (REAS Euskadi).
Errota kultur etxean, apirilean.

ZALDIBAR Berbaldia

Liztor asiarraren arriskuaz kontzientzia hartzea. (Hizlaria: Iñaki Narbaiza Erlete Eztiolako erlezaina).
Liburutegi zaharrean, 18:00etan.

EGUAZTENA 2

ABADIÑO Bisita gidatua

'La vida en el centro, una mirada feminista sobre la economía solidaria' erakusketaren bisita eta tailerra.
Errota kultur etxean, 18:00etatik 20:00etara.

BARIKUA 4

BERRIZ Antzerkia

'Scrooge eta mamuak' (KheaZiater).
Kultur Etxean, 17:00etan.

BERRIZ Kontzertua

Lionels
Eladi tabernan, 19:30ean.

IURRETA Antzerkia

'Amamaren irrifarrea' (Eidabe).
Ibarretxe kultur etxean, 18:00etan.

ZINEMA

BERRIZ

KULTUR ETXEA

Paddington. Aventura en la selva
Domeka 30: 17:00.

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

Tierra de nadie

Barikua 28: 18:30, 20:30.
Zapatua 29: 17:00, 19:30, 21:30.
Domeka 30: 17:00, 19:30.
Astelena 31: 18:00, 20:15.
Martitzena 1: 18:00, 20:15.
Eguaztena 2: 19:00.

The alto knights

Barikua 28: 18:00, 20:30.
Zapatua 29: 18:30, 21:00.
Domeka 30: 19:30.
Astelena 31: 17:45, 20:15.
Martitzena 1: 17:45, 20:15.
Eguaztena 2: 19:00.

Una ballena

Barikua 28: 18:00, 20:30.
Zapatua 29: 19:30, 21:30.
Domeka 30: 17:00, 19:30.
Astelena 31: 18:00, 20:15.
Martitzena 1: 18:00, 20:15.
Eguaztena 2: 19:00.

Blancanieves

Zapatua 29: 17:00.
Domeka 30: 17:00.

ELORRIO

ARRIOLA ANTZOKIA

Aún estoy aquí

Zapatua 29: 20:00.
Domeka 30: 20:00.
Astelena 31: 20:00.

OTXANDIO

KULTUR ETXEA

Superheroién familia

Domeka 30: 17:00.

ZALDIBAR

LIBURUTEGI ZAHARRA

Mendi Tour: Haize Ierroak + The Ice Builders + Zazpi + Andrea, an unpaved route
Eguena: 18:30.

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

Aún estoy aquí

Domeka 30: 20:00.
Astelena 31: 20:15.

Mary Superchef

Domeka 30: 17:00.

Memorias de un cacacol

Martitzena 1: 20:15.



Aurrematrikulazioa,
martxoaren 31tik apirilaren 11ra arte

Olaburu 3 - IURRETA

Tel.: 94 428 80 00

www.orobiogoiabhi.hezkuntza.net

Bulego ordutegia: 9:00 etatik -14:00etara

JUAN OROBIOGOITIA BHI

Batxilergoko modalitateak D eremuan

- Zientzia eta teknologia.
- Giza eta Gizarte Zientziak.

- Euskarazko doako kalitatezko hezkuntza.
- Orientazio akademiko-profesionala.
- Familia, ikasle eta langile guztien partaidetza.
- Teknologia berrien aldeko apustua.
- Psikologia zerbitzua.



Joseba Derteano ABADIÑO

Aitor Ansotegi espezialista da proba gogorrek egiten. Mediterraneoetik Kantauri itsasora Pirinioak zeharkatzen dituen Transpyr lasterketa egindakoa da; baita Alpeetan egiten den TransAlpes proba ere. Orain, Hegoafrikako Epic Race amaitu du, aurrean amaitu ere, 36. postuan. Etapa guztiak kontuan hartuta, 36 orduetik gora eman du mendiko bizikleta gainean. **Zer sentsazio utzi dizkizu horrelako proba gogor bat amaitzeak?**

Oso emotiboa da. Ondo prestatuta egon arren, zortea izan behar duzu, ez jausteko, osasunak laguntzeko, arazo tekniko larregirik ez izateko... Gero, proba honetan uragaz eta janariagaz ere kontuz izan behar da, sabela zaintzeko. Gainera, muturreko eguraldia izan dugu: egun bitan 40 gradu, eta beste bitan euri asko. Horiek denak gainditu eta helmugara heltzeak poz handia ematen du.

Iñaki Antxia abadiñarrak ez zuen zorte handirik izan. Biek elkarregaz egin behar zenuten lasterketa. Zer gertatu zen?

Entrenatzen genbiltzala, kolpe handia hartu eta eskumuturra apurtu zuen. Hasieran, larriagoa zela pentsatu nuen, eta, tira, gaitzerdi. Han bertan ebakuntza egitea gomendatu zitoten, baina ez geunduen ziur eta lehenago bueltatu zen etxera.

Hasieratik argi izan zenuen bakarrik jarraituko zenuela?

Bai. Iñakiri laguntzea zen nire lehen tasuna, baina bere kabuz baliatzeko kapaz zela ikusitakoan, jarraitzea erabaki nuen. Behin haraino joanda, nahiko argi nuen jarraitu egingo nuela.

Beraz, bakarka zenuen lasterketa.

Bai. Hiru txirrindulari hasi ginen bakarka, baina zerrenda asko luzatu zen azkenetako.

Nik 160 zenbatu ditut.

Makina bat azkenean! Denek bikoteka eman zuten izena, eta bajak izan ahala bakarkako zerrenda handituz joan zen. Horregaitik diotsut zortea ere behar dela proba amaitzeko, batetik zein bestetik.

Bakarrik jarraituta, zelan aldatu zitzaizun lasterketari aurre egiteko modua?

Epic Race binaka egiteko dago pentsatuta, batak besteari lagunduta. Elkarregaz joatera behartzen zaituzte. Transponder bat bategaz kontrolatzen dute kokapena, momentu denetan.

"Hegoafrikako proba amaitzeak motibatu egiten nau erronka berriei begira"

AITOR ANSOTEGI ZUAZO (BOLIBAR, ABADIÑO BIZI DA, 1973) MENDI BIZIKLETA Hegoafrikako Epic Race proba amaitu du: zortzi etapa, 608 kilometro eta 16.500 metroko desnibel positiboa. Esperientzia handia du erronka gogorrek egiten



Aitor Ansotegi, Hegoafrikan.

Asko jota, minutu biko aldean egon daiteke bien artean. Beraz, bai, bakarka gauzak aldatu egiten dira. Norbere erritmoa aurkitzea da kontua. Gero, norberak bakarrik atera behar ditu babak eltzetik. Zorionez, ez dut matxura askorik izan. Hiru-lau zultatu izan ditut, baina hori gutxienekoa da. Konpondu eta aurrera. **Bakarrik geratu zirenen artean aliatuak egin zenuen?**

Gurago izan dut neure kontura ibili. Egunez aurrera egin ahala, betikoekin elkartzen zara lasterketan, aurrerago edo atzerago, baina ez dut inogaz aparteko loturarik izan.

Ibilbideari erreparatuta, barikukoa izan zen etaparik gogorrena: 103 kilometro eta 3.050 metroko desnibel positiboa.

Horixe izan zen etapa nagusia, bai, baina niri gogorragoa egin zitzaidan hurrengo eguneko, zapatukoa. Euripean egin genuen, lupetz artean, ibilbide deserososan, gora zein behera, eta asko sufritu nuen.

"51 URTE DITUT, BAINA GUSTURA SENTITZEN NAIZ ETA GORPUTZAK LAGUNDU BITARTEAN JARRAITUKO DUT"

Gurago duzu bero handia egitea?

Ez dakit zer esan! (barrez) Eurragaz pasatu nuen txartoen, baina beroagaz ere larri ibili nintzen. Justu samar ailegatu nintzen anoa gunera. Haimar Zubeldia puntu horretan erretiratu zen, bero kolpe batek jota. Atera kontuak hortik! Bero handiegia egin zuen, denontzat.

Momentu txarretan non bilatzen da aurrera egiteko indarra?

Esperientziak lagundu egiten du. Badakizu momentu txarrak pasatuko dituzula. Burua engaitatzen ahalegintzen zara, eta zeure buruari jakinarazten krisaldiaren ondoren beste era batera pentsatuko duzula.

Zelako garrantzia du elikadurak?

Handia. Laburbiltzeko erraza da: ezin da arrozik eta pastarik falta. Horixe da gasolina nagusia; barazki apur bategaz, zaporea emateko. Kanpamentu barruan haragia ere izan dugu: oilaskoa gehien bat. Gauza berdina jaten nekatuta amaitzen duzu, baina beharrezkoa da indarra izateko.

Gertatu zaizu anekdota kuriosorik?

Atariko etapan abeltegian handi baten erditik pasatu ginen: alde batean behiak, bestean traktoreak eta erditik gu. Kuriosoa izan zen. Beste behin, ur gaineko pasabide batetik laku bat zeharkatu genuen.

Sufrimendu uneak alde batera utzita, zeintzuk dira horrelako erronka baten alde onak?

Hasierako ilusioa eta amaierako satisfazioa. Beharbada momentuan bertan ez, baina bai egunak pasatu eta gero, emozio guztiak barneratzen zoazen neurrian. Proba amaitzeak motibatu egiten nau gauza berriei begira.

51 urteagaz, horrelako erronka asko ikusten duzu aurretik?

Egia esanda, bai. 51 urte ditut, baina ez dut sentitzen gauzak egiteari utzi behar diodanik zenbaki bategaitik. Gustura sentitzen naiz eta gorputzak laguntzen didan bitartean aurrera jarraituko dut.

Aurten baduzu beste erronkarik?

Hiru probatan eman dut izena. Lehenengoa Valentzian da, ekainean, Gigante de Piedra izenekoa. Mendi bizikletan 200 kilometro dira, 6.500 metroko desnibel positibokoa. Hurrengo astean, Irati Xtrem proban parte hartuko dut. Azkenik, Gasteiz inguruko batean ibiliko naiz.

Zornotza, karatearen gorakadaren erakusle

KARATEA Amorebieta IV pilotalekuak master mailako Euskadiko Karate Txapelketa hartuko du domekan, 140 parte hartzailegaz. Kalitatez eta kantitatez, euskal karatea "bere historiako momenturik onenean" dagoela nabarmendu dute antolatzaileek

J.D. ZORNOTZA

Euskal karatea sasoi onean dago eta Zornotza horren isla izango da domeka honetan. Master mailako Euskadiko Karate Txapelketak 140 parte hartzaile batuko ditu Amorebieta IV pilotalekuan.

Lehiaketa 10:00etan hasiko da eta modalitate bi izango ditu: Kata eta Kumite. Sarrera doakoa da. Zornotzako Ukabidea taldeak ordezkarri bat izango du Master 60 kategorian: Iñaki Calvo.

"Sasoi onaren" arrazoiak

José Manuel Colás Euskadiko Karate Federazioko presidentek argi du. "Karatea historiako momenturik onenean dago Euskadin", adierazi zuen eguazteneko aurkezpenean. Euskal karatearen kalitatearen adibide dira joan zen asteburuan Espainiako txapelketan lorturiko emaitzak. "Dominatorren zerrenda orokorrean hirugarren geratu gara. Errekor historikoa da",



Euskadiko federazioko, Zornotzako Udaleko eta Ukabidea klubeko ordezkarriak.

esan du Colasek. Kantitatean ere aurrerapausoak eman dira. Esaterako, teknifikazio programen bitartez "ahalegin berezia" egin dute emakumeen parte hartzea sustatzeko. Horrela, Zornotzan 40 emakume baino

gehiago arituko dira; lehenengo aldian bi baino ez ziren lehiatu.

Azkenik, master mailako txapelketa egotera, karatea utzita zuten beterranoak kirolera bueltatu dira eta gorakadaren beste arrazoi bat da hori.



Iazko eskola arteko duatloia. MUGARRATT

Durangoko duatloiak lasterketa inklusiboa ere izango du bihar

DUATLOIA Bost mailatan parte hartu daiteke, benjamin aurrekoetatik gazteetara. Ezkurdi plazan izango da

J.D. DURANGO

Aurten ere, Mugarra Triatloi Taldeak Durangoko Duatloia antolatu du, martxoaren 29rako. Ezkurdiko plaza izango da erdigunea. Gazteen artean kirol honegatzko zaletasuna piztea da helburua. Bost maila egongo dira, benjaminurrekoetatik hasi eta gazteetara arte. Aurten nobedade bat ere badago: lehenengo, lasterketa inklusiboa egingo dute, Mugarrako kideek jakinarazi dutenez.

Urtero legez, gazteak adinka banatuko dituzte. Kadeteak eta gazteak izango dira lehiatzen

lehenengoak, 10:00etan. Azken horiek egingo dute distantziarik luzeena: 2,5 kilometro korrika, 10 km bizikletan eta 1,5 korrika. Segidan, haur kategoriakoen eta kimu mailako txanda izango da, 11:00etan eta 11:30ean, hurrenez hurren. Azkenik, benjaminak (12:00etan) eta benjaminurrekoak (12:30) ibiliko dira korrika eta bizikletan. Lasterketa inklusiboa 13:00etan hasiko da.

Benjaminetatik haur kategoriari arteko umeen izen ematea egunean bertan ere egin daiteke, Ezkurdin.



JOKALDIA

IÑAKI IZA ZARAZUA PILOTARI OHIA

Zuriz hasi, baina...

Agian sinplekeria egotziko didazue pilotari baten ibilbidea kirol lorpen soiletara murrizteagatik, baina, idazteko leku mugatuak gauzak sinplifikatzera behar izaten nau. Beraz, aurrez, barkadazue.

Mikel Urrutikoetxeak bere ibilbide profesionalaren amaiera iragarri zuen martxoaren 12an emandako prentsaurreko baten. Pilotaren historian zortzi pilotarik baino ez dituzte hiru txapel nagusiak irabazi. Bada, Mikelek olinpo horretan sartzea lortu zuen 2015-2016 denboraldiko txapel guztiak irabaziz. Bada zerbait.

2009an, debuta egin zuenean, espektatiba handiak sortu ziren Urrutiren inguruan. Batez ere, buruz buruko txapela Bizkaira hogeitaka urtean ezin ekartzearen antidotoa zen mutiko mehar hura zaleentzat.

Handik sei hilabetera bigarren mailako lau eta erdikoa irabazi zuen, baina pilotazaleak, zorrotz, txapel nagusia eskatzen zion Mikeli. Sei urte luze geroago jantzi zuen sari handia, eta, gainera, behin hasita,

errenkadan bururatu zituen gainontzeko bi modalitateetakoak ere.

Lau eta erdikoa epikaz irabazi zuen. 10-20 galtzen joan, 12 tanto jarraian egin eta 22-20 irabazi zion Irujo handiari. Bide batez, Bizkaira ekarri zuen 1953tik lortu gabe zegoen titulua.

"DENA EZ DA LORIA IZAN. IRABAZITAKO TXAPELAK BEZAIN BELTZA DA ZARATAMARRAREN BIDEA ZIKINDU DUEN ORBANA"

Binakakoan ere izan zuen, bada, meritua Mikelek. Izan ere, berea ez zen postuan irabaztea lortu zuen Aimar Olaizolaren atzelari gisa. Balentria handia, inondik ere.

Baina dena ez da loria izan Urrutikoetxearen jardunbidean, eta irabazitako txapelak bezain beltza da zaratamarraren bidea zikindu zuen orbana. Pilotariaren greban, kideen elkartasun adierazpen bete-betean, Urrutik enpresaren aldeko jarrera hartzea erabaki zuen Aimar Olaizolarekin (Baikoko kirol arduraduna gaur egun) eta Ander Imazekin batera. Horrekin, besteak beste, Laso, Mariezkurrena, Eskiroz eta Victor Baikotik kaleratzeko erabakiarekin bat egin zuen. Ados bihozgabekeria horrekin. Hotz.

Sebastian Lizasok "zuriz jantzita hasi hintzen ta zikindu gabe bukatu" kantatu zion Bengoetxeari Azpeitiko agurreko partidaren. Mikel ere zuriz jantzita hasi zen, baina... orbanduta bukatu, ordea.

GUARDIAKO BOTIKAK

MARTXOAK 28, BARIKUA

09:00-09:00

Navarro, Artekalea 6 - Durango

Melero, San Pedro 31 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

MARTXOAK 29, ZAPATUA

09:00-09:00

Etxebarria, Montevideo etorb. 2. - Durango

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

Astelehena, 00 XXX

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

MARTXOAK 30, DOMEKA

09:00-09:00

Bazan, Uribarri 5 - Durango

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

MARTXOAK 31, ASTELEHENA

09:00-09:00

De Diego, Inbaurrondo 22. - Durango

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

APIRILAK 1, MARTITZENA

09:00-09:00

Sagastizabal, Askatasun etorb. 19 - Durango

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

APIRILAK 2, EGUAZTENA

09:00-09:00

Mugica, Andra Maria 9 - Durango

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

APIRILAK 3, EGUENA

09:00-09:00

Balenciaga, Ezkurdi plaza 8 - Durango

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

24 orduz zabalik dauden farmaziak dauden zerrendan.

22:00 arte zabalik daudenak ere ikusteko: www.anboto.org/botikak


ZORION AGURRAK



Lier
Martxoaren 25ean, 11 urte. Zorionak, **Lier!** Martxoaren 25ean 11 urte egin duzuz; jarraitu orain arte bezalako mutiko jatorra izaten! Besarkada haundi bat familiarako guztion partez.



Uzuri Cebrian
Martxoaren 16an **Uzuri Cebrianen** urtegune izen zan. Zorionak, laztana! Moxu handi bat!



Naia
Martxoaren 26an, 15 urte. Zorionak, **Naia!** Asko disfrutau zure egune! Asko maite zaitugu! Oso harro gauz zutaz, jarraitu zaren modukoa izaten! Mosuek Jon eta Arriandikuen partez!



Amale
Martxoaren 26an, 4 urte. Martxoaren 26an **Amalek** 4 urte egin dauz. Zorionak gure bihurrixari ebeko danon partez.



GOZATU GOZOTEGIA
Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
☎ 661 40 14 00
f Gozatu Gozotegia
@ gozaturgozotegia

Urte askotarako!

Hamabostean behin, jasotako zorion-agurren artean **GOZATU gozotegiko tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion-agurrarekin batera.

Zoriondu itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet

Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta Anboto.org/zorionagurrak helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.


Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@anboto.org helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.

Ordezkaritzak

Etorri zaitetz Anbotoren ordezkari zara edo deitu 946 232 523 telefonora.

EGURALDIAREN IRAGARPENA



DIBA
KOOPERATIBA

Durangaldeko Baserritarren Elkarte

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

IBARRETXE KULTUR ETXEAN
ANTZERKIA BULTZATUZ 2025

Apirilak 4 - 18:00
AMAMA
irrifarreen ondarea
Urmeintzat

Sarrerak harreran:
SARRERAK
Urteak 1€ / Helduak 3€

Iurreta
BIZKAIA

OROMIÑO SAN MARKO AUZOAN
AUZORIK AUZO 2025

Apirilak 5 - 18:00
Miren Fernandez & Iñaki Miguel

Jarriaian auzokideekin
luntx xume bat

Iurreta
BIZKAIA
IURRETA

INMOBILIARIAK



C.E.E.= E 160.000 €

ERMODO 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Bizitzen sartzeko moduan.



C.E.E.= E 236.000 €

IURRETA Apartamentua. Erdi berria. Eguzkitsua. Terraza. Ganbara eta garaje itxia.



C.E.E.= E 265.000 €

SAN INAZIO 3 logela, 2 komun, eskegitokia eta egongela. 2 terraza. Garajea. Piztina.



C.E.E.= F 126.000 €

MATIENA Guztiz jantzia. 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela.



C.E.E.= F 293.000 €

ARKOTZA 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Terraza. Garajea aukeran.

**ETXEBIZITZAK SALGAI DURANGO**

Artekalea: Guztiz berriztatua. 2 logela, komuna eta sukaldea. 3. solairua. Iggailurik gabe.

San Inazio auzunea: 3 logela, sukaldea eskegitokiarekin, egongela balkoiarekin eta 2 komun. Garajea eta trasteleku.

Arkotxa: 3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea eta 2 komun. Ganbara. Garajea.

Barrenkalea: Logela bakarrekot apartamentua. Sukaldea, egongela logela eta komuna. Trasteleku.

Tabira: 4 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 3 balkoi. Argitsua.

Barrenkalea: Logela. sukaldea eta komuna. Trasteleku.

BERRIZ

Berriz: 2 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta komuna. Garajea eta trasteleku.

ATXONDO

3 logela, komuna, komun txikia, despentsa, sukaldea balkoiarekin eta egongela. Ganbara.

LURSAILAK SALGAI

Iurreta: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

Abadiño: Etxezurin kokatua. 300 m². Berriztatze. Lursailarekin. Ganbara.

Berriz: Andikona auzoa. Baserririk ikusgarria, berriztatze. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

Markina: Iturreta auzoan. Baserririk salgai. Teilatua konponduta. 12.000 m²-ko lur sailarekin.

Mañaria: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

BULEGOAK ALOKAIURAN**ABADINO**

30 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

DURANGO

Ermodo kalean. 100 m². 2 bulego alokairuan. Garajearekin.

LOKALAK ALOKAIURAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

Matiena: 460m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

Elorrio: 600 m²-ko pabilioia salgai. Komunak, aldagelak eta bulego. Jantzia. Lanerako prest.

LOKAL INDUSTRIALA ALOKAGAI**IURRETA**

Arriandi industrigunean. 111 m². Bulegoa eta komuna.

Arriandi industrigunean. 400 m². Biltegirako proposa.



C.E.E.= E 169.000 €

DURANGO Goienkale: 66,56 m². Egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Etxe erdiak kanpora ematen du (mendebaldea) Erdigunean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzuek Egoera onean. Ganbara.



C.E.E.= BIDEAN. 310.000 €

DURANGO Muretatorre: 115 m². Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Egoera onean baina berrikuntza batzuk behar ditu. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialdea) Leku onean kokatua. Zonalde berdez eta zerbitzuek inguratuta. Garajea eta trasteleku ondoan.



C.E.E.= BIDEAN. 415.000 €

DURANGO Gasteiz bidea: 2.008. urtean eraikia. 97 m². Halla, egongela, sukalde jantzia, eskegitokia, 3 logela eta 2 komun. 2 balkoi. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du (ipar-mendebaldea) Argitsua. Ikuspegiak. Leku onen kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzuek gertu. Herriko sarrera/irteeratik gertu. Iggailutik eta trastelekitik (8 m²) sarbide zuzena duen garajea. Jantzia.



C.E.E.= F. 149.000 €

IURRETA Dantzari: 58 m². Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Balkoia. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du (hego-ekialdea, ipar-mendebaldea) Leku onean kokatua. ITE-a pasatutakoa, ez ditu hobekuntzak behar.



C.E.E.= BIDEAN. 166.000 €

IURRETA Uralde: 66 m². Egongela, sukalde jantzia, 2 logela eta komuna. Balkoia. Egoera onean. Argitsua. Etxe osoak kanpora ematen du (hegoaldea). Leku onean kokatua. Jantzia. ITE-a pasatutakoa. Ez ditu hobekuntzak behar.

**DURANGO**

Barrenkalea: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Iggailua. Berriztatze. **LEHEN 150.000 € / ORAIN 138.000 € / E.E.Z=G**

Barrenkalea: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

Bartolome Ertzilia kalea: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Ganbara. **Lehen 170.000 € - Orain 159.000 € / E.E.Z=E**

Frantzisko Ibarra: 4 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta 2 komun. Balkoia. Iggailua. **335.000 € / E.E.Z=E**

Juan de Olazaran: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Iggailua. Trasteleku eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

ABADINO

Dendarikoa: Zaharberritzeko dagoen eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. **215.000 € .**

Eskolakoa: Duplexa. 3 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Balkoia. Garajea eta trasteleku. **325.000 € / E.E.Z=G**

Txanporta plaza: Eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. **253.000 € / E.E.Z=Bidean**

ATXONDO

Artekalea, 13: Konpontzeko baserririk lursailarekin. **300.000 €.**

BERRIZ

Murgoitio auzoa: Berreraikitze baserririk lurzoruagaz. **LEHEN 280.000 € / ORAIN 250.000 €**

Eitua: Berreraikitze baserririk lursailarekin. **350.000 €**

GARAI

Momoitio auzoa: Etxebizitza eraikitze lursailak. Aukera ezberdinak.

IURRETA

Bixente Kapanaga: Zaharberritzeko etxebizitza. 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **95.000 € / E.E.Z=F**

IZURITZA

Elizalde auzoa: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **LEHEN 620.000 € ORAIN 570.000 € / E.E.Z=E**

GARAJEAK SALGAI/ALOKATZEKO**DURANGON SALGAI**

Alluitz: Garaje itxia. **24.000 €.**

Kurutziaga: garajea. **18.000 €.**

Madalenoste: Garaje itxia eta trasteleku. **42.000 €.**

DURANGO ALOKAGAI

Monago Torre: Garajea. **50 € / hilean.**

Muretatorre: Garajea. **75 € / hilean.** Beste aukera batzuk bulegoan galdetu.

LOKALAK ETA PABILIOIAK SALGAI/ALOKATZEKO

Informazio gehiago bulegoan.

PISUAK ALOKATZEKO

Informazio gehiago bulegoan.



LAU-HORTZA

MARKEL SANCHEZ
ZELAIA

Entzun, makina

Lagundu nahi dizut. Agian ikusi duzu Tik-Toker bat edo Teleberriko aurkezlea esaten gerra guapo dagoela, Europa arriskuan dagoela eta armatu beharra dugula. Entzun, makina, gerrara zu joango zara eta hil egingo zaituzte. Gerra ez dago guapo. Enpresariak dirutza egiten jarraitzea ez dago guapo. Egin kasu, makina, guapo daude independentzia, sozialismoa eta feminismoa. Entzungo zenuen jendea Youtube esaten "woke", edo esaten mobida transfoboak eta arrazistak. Makina, jende hori langile klasea zatitzen ari da bere mierdekin. Justu kontra-koa esango dizute, baina keba! Edo agian entzungo zenuen influencer bat etxebizitzan inbertitu behar dela esaten, okupen kontrako asegurueta, eta horrela. Makina, ez espekulatu, egidazu jaramon, arratoi zikin bat izatea ez dago guay. Ikusiko zenuen Kutxabankeko presidentea edo El Correo euskararen kontra. Zer esango dizut, makina, euskaraz bizitza guapo dago, batzuetan erdarako maileguak hartu arren. Begiraidazu begietara, makina, ez egin boteretsuen interesen alde. Nahiz eta gero eta diskurtso erreazionario gehiago egon, nahiz eta gerrazale gehiago egon, makina, hori ez da bidea. Egidazu kasu, ni ez naiz influencerra, ez daukat sare sozialik, nik ANBOTOn zutabe bat daukat.

AKUILUA

Aitziber Basauri DURANGO

Kangreburgerraren bila argazkiak irabazi du ANBOTOk antolaturiko inauterietako argazki lehiaketa, *Surrandi* argazki-gaz lehia estua izan ondoren. Naia Villares-Sanchezen (Durango, 2006) eta Irene Alberdiren (Durango, 2006) lagun taldeak bidali zuten argazkia.

Boto biri eskerrak irabazi zenuen. Merezitako garaipena izan da?

Naia Sanchez-Villares: Azken astean, inguruko denei eskatu genien gure argazkiaren aldeko botoa, kuadrillan ere bai. Azkenean lortu genuen, eta merezi izan du.

Irene Alberdi: Oso pozik gaude. Egundoko ilusioa egin digu irabazteak. Ez genuen irabaztea espero. Zazpi boto baino ez genituen eta *Surrandi* argazkiak 100 bototxi gora. Horri buelta ematea lortu genuen.

Lehenengoz parte hartu duzue? Zelan animatu zineten?

I.A.: Bai, lehenengoz. Naiak sareetan ikusi zuten inauterietako argazkien lehiaketa zegoela, eta argazkia bidaltzea animatu ginen.

Nori bururatu zitzaion mozarroa? Bob Esponja marrazki bizidunen jarraitzaileak zarete?

N.S.: Ez bereziki. Bideo bat ikusi genuen sareetan, eta hala mozarrotzeko proposamena egin zuten norbaitek.

I.A.: Urtero hainbat aukera proposatzen dugu, eta botorik

**"GOGOZ HARTZEN
DITUGU INAUTERIAK.
DENOK ELKARTZEN
GARA ETA EGUN
POLITA IZATEN DA"**

"Egundoko ilusioa egin digu lehiaketa irabazteak"

NAIA SANCHEZ-VILLARES GARCIA ETA IRENE ALBERDI URREJOLA IKASLEAK ANBOTOk antolaturiko inauterietako argazki lehiaketa euskal produktuekin osatutako otzara eskuratu dute; horregaz, lagun artean bazkaria edo afaria egingo dute

gehien lortzen duen gai hortaz mozarrotzen gara. Horrela egingen dugu beti. Proposamen mordera batzen dugu, egia esanda. **Hala ere, Bob Esponja eta Patrizio falta izan dituzue taldean.**

N.S.: Bob Esponja ere bazegoen gugaz, argazkian agertu ez arren. Momentu horretan lanean zegoen; gauean batu zen taldera. **I.A.:** Patrizioz mozarrotzera inor ez zen animatu!

Denbora asko eraman zizuen mozarroak adostu eta egiteak?

I.A.: Bakoitzak bere aldetik egin zuten mozarroa, etxean, bideoak ikusiz. Nahiko mozarro erraza izan zen eta ez zigun denbora askorik kendu.

Inauteri zaleak zarete?

N.S.: Bai, gustatzen zaizkigu. Batzuei beste batzuei baino gutxiago, baina orokorrean denok ditugu gogoko inauteriak. Denok elkarregaz egoten gara eta egun polita izaten da. Nik neuk gogoz hartzen ditut.

I.A.: Nik ere bai. Aukera dagoen bakoitzean mozarrotzen gara. San Fausto jaietan ere beti animatzen gara.

Badudue ideiarik datorren urterako?

N.S.: Oraindino ez. **I.A.:** Azkenengo momentuan erabakitzen dugu askotan. Iaz Dora esploratzailea aukeratu genuen.

Zelan banatuko duzue saria?

N.S.: Afari edo bazkari bat egingo dugu otzarako produktuekin. Baina, tira, zeozer gehiago erosi beharko dugu.

I.A.: Bai, astebururen batean elkartu eta zeozer egingo dugu. Larregi atzeratu barik.



Lan bide
HEZIKETA

**ZATOZ
ATE
IREKIETARA!**

Goi mailako ikastola



Gizarte eta kirol animazioaren irakaskuntza

Erdi mailako ikastola



Erizaintzako zaintza osagarriak

Erdi mailako ikastola



Mikro-informatika sistemak eta sareak

Erdi mailako ikastola



Osasun larrialdia

arizmendi ikastola PRO

ATE IREKIAK

Apirilak 9 18:00etan

Ferixalekuan (Arrasate)

www.arizmendi.eus